

RIKARDO GOGOAN

JOAN MARI TORREALDAI

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| AITZIN OHARRA | 45 |
| 1969: HERIOTZAKOAN | 47 |
| Egun handirarte...! <i>Andoni Iturria</i> | 47 |
| Rikardo Etxean. <i>Manuel Lekuona</i> | 48 |
| Gizona. <i>Carlos Santamaria</i> | 49 |
| Rikardo eta kultura. <i>Joan Mari Torrealdai</i> | 50 |
| Rikardo Arregi pentsalaria: Bere lanak eta berari buruzkoak. <i>Juan San Martin</i> | 51 |
| Euskal Alfabetatzea Rikardo gabe. <i>Zenbait Lagun</i> | 52 |
| 1970-1972: HERIOTZ ONDOTIK | 54 |
| Rikardo Arregi: kultura animatzailearen eredu. <i>Mikel Las</i> | 54 |
| Rikardo Arregi: politikaren atarian. <i>Martin Ugalde</i> | 56 |
| Rikardoren pentsaera. <i>Joan Mari Torrealdai</i> | 58 |
| Rikardo Arregi kazetari. <i>Joan Mari Torrealdai</i> | 62 |
| 1978-1979: 10 URTE GEROAGO | 71 |
| Ricardo Arregi, impulsor de la alfabetización en euskera. <i>Kultur Deia</i> | 71 |
| Rikardo Arregi, euskal gizarte hautsiaren lekuko. <i>Egin</i> | 71 |
| Rikardo Arregi nere gogoanean. <i>Manuel Lekuona</i> | 73 |
| Saizarbitoria: “Rikardok ireki zion gazteriarri kezka kulturala”. <i>Antton Haranburu</i> | 75 |
| Rikardo Arregiren oroigarri askatasuna eta Sabino Arana. <i>Martin Ugalde</i> | 77 |
| Rikardo, gidari. <i>Ibon Sarasola / Ramon Saizarbitoria</i> | 80 |
| Rikardo, idazle. <i>Anjel Lertxundi</i> | 81 |

| | |
|---|----|
| 1989: 20 URTE GEROAGO | 83 |
| Rikardo Arregiren garaian eginkizun zena, gaur ere eginkizun. <i>Orria/Joseba Arregi</i> | 83 |
| 1994-1995: 25 URTE GEROAGO | 90 |
| Rikardo Arregi gogoan. <i>Joan Mari Torrealdai</i> | 90 |
| Rikardo Arregi Zeruko Argia-n. <i>Agustin Ezeiza</i> | 92 |
| Rikardo Arregi eta Jakin: 25 urte. <i>Jakin.</i> | 94 |
| Rikardo, laburrean. <i>Amaia Lasa, Ibon Sarasola, Juan San Martin, Andoni Sagarna, Mikel Lasa, Joan Mari Torrealdai, Ramon Saizarbitoria</i> | 98 |

Aitzin oharra

Rikardo Arregiri buruz esan eta idatzi direnetatik sorta bat aurkezten dugu hemen. Luzeraz txikiak-edo, nabiz eta edukiz bete-beteak hauetatik asko. Iritzi pertsonalak, testigantzak eta azterketa itxura duten aurkezpenak daude hemen bildurik. Han eta hemen sakabana-tuak daudelako bildu ditugu, irakurlearen eskura jarri-asmoz. Badira liburuetan leku propioa duten azterketa sakonak eta luzeak, bibliografian ikus daitekeenez. Ez da horientzako leku egokia hemengo hau.

Bilketa hau ez asmoz eta ez izatez da osoa. Askoz ere bigiago esan eta idatzi izan da 25 urte hauetan. Hemeroteka lan izugarria eskatuko luke horrek. Eta zailagoa dena, fonologia-lana, magnetofоек gorde duten dena errekuperatu nabiko balitz.

30 bat lan biltzen dugu hemen. Beste hainbeste egon daiteke kanpoan. Andoain-en bertan esan direnetatik parte bat soilki dago jaso. Gogoan dut 1978ko maiatzean Hauzolan Elkar-teak antolatutik Rikardo Arregiri omenaldia eskaini zitzaiola eta bizlari-andana handia bildu zela bertan bi mahaingurutan: Begoña Arregi, Imanol Laspiur, Jesus Mari Eizmendi, Telesforo Monzon, Martin Ugalde, Ramuntxo Kanblong, Carlos Santamaria, Piarres Xarriton, Txillardegia, Juan San Martin, Andu Lertxundi, Xabier Lete, Iñaki Beobide, Miren Jone Azurza. Beste bi mahainguru antolatu zituen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 1994ko azaroan eta hor ere baziren 10 bat lagun: Begoña Arregi, Joxe Bernardo Jauregi, Jesus Mari Eizmendi, Joan Mari Torrealdei, Agustin Ezeiza, Ibon Sarasola, Anjel Lertxundi, Joseba Arregi eta Joxe Azurmendi. Elkarrizketa hauetan esana, zoritxarrez, jaso gabe dago. Ez hemen eta ez inon. Hobeto esan: ez dago bere osoan jasoa hemen. Baina bai partzialki. Ondoko hainbat lan mahainguru hauetarako prestuak dira, edo gertakari hori dela eta eraginak.

Material sakabanatua leku batean biltzea dute asmo nagusizat ondoko orrialdeek, aldizkari eta egunkarietan 25 urtetan barreiatutako materiala. Jatorriz, formatoz eta helburuz arras desberdinak dira: heriotz-osteko emozio-dardaratik, lekukotasunera eta hemendik ia-ia azterketaraino doaz lanak. Berriz diogu, kazetaritza-mailakoak eta bitzaldietan-eta emanak dira, azterketa sakonak aparte utzi ditugu-eta. Eskuizkriburik ere badago tartean.

Jatorrizko marka eta guzti datoz artikulu asko, garaiari dagozkionak edota materialen erabilkizunari lotuak (bitzaldi, etab.). Hori guzti hori bere horretan utzi dugu. Ez, horrela ortografia. Gaurkotu egin dugu ortografia, Rikardo Arregik berak esango lukeen bezala "oraingo ortografiaren legalidadean" sartu ditugu bai Rikardoren beraren lanak eta bai besteenak, Manuel Lekuonaren kasuaren salbuespenarekin.

Material hau guztia nola ordenatu?

Irizpide kronologikoa izan dugu nagusiki gidari. Hiru une nagusi nabarmen ageri dira artikuluen jatorrian: bata Rikardo Arregiren heriotzakoan Zeruko Argia-k dozenerdi bat artikulu gora argitaratu zuen.

Bigarren une inportantea, heriotzeko 10 urte-buelta hori, 1978ko Andoiango omenaldia izan zen. Aurreko urtean sorturiko Egin eta Deia-k bideratzen dituzte bainbat artikulu eta, gero, buruen urtean Jakin-ek ere beste batzuk publikatu egiten ditu, omenaldiaren zurrun-bilo berean.

Eta azkenik 1994an, heriotzako 25 urte betetzean, Manuel Larra-mendi Kultur Bazkunak antolaturiko mahainguruez gain Egunkaria-k, Argia-k eta Jakin-ek berriz hartzen dute gaia.

Data nagusi horietaz gain bada material gehiago, bitzaldi, elkarrizketa eta tankera honetakoak, eta horiek ere kronologikoki dagokien lekuan agertuko dira. Aparte batean, amai-amaieran, agertuko direnak, testigantza, aipamen edo iritzi soil eta laburrak bukaeran dira.

1969: HERIOTZAKOAN

ANDONI ITURRIA

EGUN HANDIRARTE...!

“Iturriak ba daki kainabera nun dan...”, dio gure koplá zaar batek. Euskal Herriak ere –bai horratik!– Rikardo nor zen...

Ondo merezia zenuelako, han ziren, Andoain-go eliz-nagusian, barru eta ingurumariak lehertzearaino, Euskal Herriko semerik jatorrenak zure hileta egunean. Herriak beti jakin oi du nork serbitu duen. Eta horretxegatik, herriak ondo baino ere hobeto zure serbitsua ikustatu zuelako, Andoain herria gainezka ikusi ahal izan genuen.

Sekula inbiria zer den nabaritu ere ez duenak, inbiriz ikusi behar derriorrez, noski, zure eorketa-unea. Lurak bere magal hotzean hartu zinakenean mendiak ere lehertu egin ziren gure aintzinako txalaparta hotsarekin. Han zan, Buruntza-pean, Euskal Herri osoa. Bai behar ere!

Sei urte ondo paseak dira *Zeruko Argia*-ra iritsi zinela. Orditik geure-geurea zinen. Ilusioz beterik azaldu zinen gure artera. Gaur, bizi-sasoirik ederrenean, alde egin diguzu. Gure zoritxarrez, betirako.

Asko eman zenuen euskararen onerako. Baita *Zeruko Argia*-ren onerako ere. Baina eman duzunaren gabeak min ematen badigu, gure herriaren onerako aurrerantzean eman zenezakeenak ematen digu min garratzagoa.

Hamaika erakusaldi emandakoa izan zara gure artean. Burua argia zenuen. Bai horixe. Baina baita lanerako grina ere. Langile porrokatua izan zinen beti. Horra zure erakusaldirik bikainenetakoa bat: jakin-gosea eta lan-gurea piztu zenuen non-nai eta edonon.

Zure lanetan arduratsu bazinen, baita biotz-andi eta zabal zure lanekin bat ez zirenekin ere. Polemikazalea zintugun. baina bihotz onekoa bestaldekoekin. Hor ikusten genuen, garbi asko, zure jatortasuna.

Uztail honetakoa ostegun kiskalgarri batek ekarri zigun berri minga-ria. Halabeharrez, zure bizi mardulak eskaintzen zigun uzta ederraren faltan gelditu ginen. Baina euskarak eta Euskal Herriak –zer esanik ez gure *Zeruko Argia* honek– beti gogoan izango zaituztegu.

Agur, Rikardo. Egun Handirarte!

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

MANUEL LEKUONA

RIKARDO ETXEAN

Nolakoa zan Rikardo etxean?

Askok eta askok jakin naiko dute.

-Etxetik kanpora hainbeste lan egindako ume hura, nolakoa zan etxean?

-Horra, bada. Etxetik kanpora langille bazan-ta, etxean langilleago. Bere Ekonomia-Estudio-saioz gainera, bere Alfabetatze-lanetarako prestakizunak, eta bere *Zeruko Argia* betiko bi edo iru artikuloak. Besteak beste. Beti lanean.

Hori bai: bein ere hortarako inor molestatu gabe. Ixil-ixillik, bera bere gisa. Eten gabe.

Amaika bider, haren eskribitzeko makinaren tiki-taka azkarra entxunik nago ni, aren nerearen aldameneko gelatik: edozein ordutan; egun argiz, edo "gabean-gaberdi", aren makinaren eten-gabeko tiki-taka ots azkar hura...

Baiñan bai bait zekian, seme onari dagokion bezela -lana bukatutakoan, edo betiko lanez aspertutakoan- salto bitan sukaldera jetxi eta amarekin itz-aspertu bat egiñaz egoten ere... amaren pozkarri, ta bere buru nekatuaren aringarri...

Otordu-garaian, maiean gure Rikardo, beti bere puntuan, iñor berari itxedoten euki gabe. Aldiz ixil, aldiz iztun. Bein ere ez, ordea, hark, maiean jakinduri-jardunik. Senideakin beti broma, beti alai...

Baiñan Rikardo'ren bizitzan, neretzako ordurik ezin ahaztuena -gure Berrozpe'ko Elizan jaunartzen ikusten nuanaz gain- beti ere beste egunoroko ordu bat izaten zan: etxeko oitura zaharreko Errosario-ordua: illunabarruko, afal-aurreko Errosario Santuaren ordua.

Hartako deia entzun bezain laister, lan danak bertan behera utzita, an jetxiko zan gure mutilla, salto bitan berriz ere, bere gelatik sukaldera, han mutur batetik bestera, joan-etorri, joan-etorri, "Agurmariak eta Agurmariak" gurekin batean -utzitako lanaz distraitu-antzean- esan eta esatera...

Hoietxek dira, nere baitan, bein ere aztutzeke gogoan eukiko ditudan, Rikardo'ren etxeko oroitzapenak: haren eten-gabeko makinaren tiki-takakoa, eta aren errosario Santua esateko, sukaldean batetik besterako ibilli distraitua.

Eta... ezin degula sinistu, berriz ere, noiz-nai, hemen, gure artean ikusi behar ez degunik... Ezin sinistu.

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

CARLOS SANTAMARIA

GIZONA

Gure Rikardo zena gazte urduritzat hartzen zuten batzuek, besterik ez. Baina Rikardo gizon osoa eta heldua zen, benetakoa. Areago, egiaz esan dezakegu herriren batean holako gizonak ez direla agertzen, behin edo behin besterik.

Laburra izan bada ere, bere biziak ekarri onak eta sasoiak izan zituen eta, Rikardoren izena urte askotan maitasunez oroituko da Euskal Herrian.

Adimen indartsua eta argia zen Rikardorena, eta argidura hau sail askotan azaltzen zen. Aspaldi honetan, izan ere, matematika ikaskintzen laguntzen nion nik. Batzutan harriturik gelditzen nintzen bere "poder de sintesi" egiztatzean. Teoria bat agertzen zuenean, oinarriak eta helburuak erakusten zituen hasieratik, argi izugarritarekin. Oso gutxi daude, matematika ikasleen artean, horrela egin ahal dutenak. Matematikazale handia izan ahal zitekeen, izan nahi ezker. Baina berak, lumeroak ez, gizonak eta gizarteak maitatzen zituen batez ere.

Bi kualitate zituen, guztiz maitagarri egiten zutenak, garbitasuna eta prestutasuna edo eskuzabaltasuna alegia.

Garbia zen gure Rikardo. Poza ematen zuen berekin har-emanak izateak. Beraren atsegin eta irabaziak ez ziren inoiz sartzen bere asmoetan. Bestaldetik langile izugarria genuen, ezin sinistekoa. Herriaren alde ekiteko beti prest.

Arazo berri bat agertzen zenean bere buruaz ahazten zen eta berehala lanean zenuten.

Erljio sailean oso gizon serioa zen uste dudanez. Bere kezkek, egiazkoak eta sakonak ziran. Azaleko erlijioa, mitoak eta sasi irudipe-nak iguin zitzaizkion.

Benetan, egiazko Jainkoaren bila zebilen beti, begi eta bihotz garbiekin

Jainkoak berak, misteriozko Jainko Horrek, hartu digu. Gurea baino zoriontsuagoa da orain gure Rikardo laztanaren izpiritua.

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

JOAN MARI TORREALDAI

RIKARDO ETA KULTURA

Eskema-gisa, apunte batzuk bakarrik eman nahi ditut. Luzatu eta borobildu litezke. Baina gaur eta hemen ezin dut.

Rikardok euskal kultura gertutik ezagutzen zuen. Horretan ibiliaren esperientzi jakingarria zeramakian.

Eta Rikardorentzat, kultura ez zen bere burua eder azaltzeko bide erraz bat. Eginkizun eta betebeharrak bat zen, hori bai. Ez dut dudarik.

Euskal kulturak hil-zoria gainditu zezan, jakintza-planifikatze bat eskatzen zuen. Planifikazio bat, arrisku galgarri batetik gure kultura behin betirako libratzeko: espontaneismotik, alegia. Eta spontaneismoa zer den, programa baten arabera lan egiten ez denean, nork ez daki?

Euskal kultura, Rikardorentzat, aurrelaria izanen da, ez du bestela aurrerapiderik. Ez da iritzi txoro bat, ez eta snobzalekeria bat. Zergatik, bada, aurrelaria? Hara: konserbatzea baino gehiago lortzea, ez duguna bilatzea, beste kultura nagusien maila iristea, delako gure lehen arazoa. Lehengoaren gain nola ez, baina geroa gauzatzeko lanabes egokia hizkuntza bat ez baldin badugu egiten, orduan hizkuntza horrek ez du hogeigarren mendean bizitzeko eskubiderik. Printzipio orokorra dena, gure Herrira ekarteak bildurtu egiten gaituela ematen du. Baina burua lurpean ezkutatuaz, arazoak ezin daitezke uxatu. Horregatik zerabilkian Rikardok eskuarteko kultura-lana.

Kulturalismoaren arriskua ere ezaguna zitzaion. Honen aurka didaktismoaren harmak hartu zituan. Bi adibide soilki jartzearen: *Jakin* 35-eko Marcuseri buruzko bere "Eguzkialdeko haize horiek" eta urteetan zeramakian alfabetatze-kanpaina hori nola esplikatu daitezke bestela?

Alfabetatzea aipatzean, ezin dugu ahaztu ekintza honen sustraia. Jakintza-infrastruktura, esan nahi dut. Maiz mintzatu ginen honetaz. Gure artean, alfabetatzeak eta ikastolak eratzen dute batez ere infrastruktura hori. Eta hain zuzen intelektual baten lana Herrian hezurramitu zedin, alfabetatzeari ekin zion buru eta bihotz Rikardok. Ba dakigu lanbide honetan egile eta eragile borrokalaria bera izan zela.

Bukatzeko. Nik daramadan lanak ez dakit zenbat balio dezakeen. Rikardok asko lagundu zidala aitortu nahi dut.

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

JUAN SAN MARTIN

RIKARDO ARREGI PENTSALARIA: BERE LANAK ETA BERARI BURUZKOAK

Gaurko pentsalari bilbaina, gazte egialari baliosa, euskal kulturaren arduraz eta bere etorkizunari laket, eskaintza osoa emanaz zihoana hil zaigu: Rikardo Arregi.

Baina gure herriarekin ez-ezik munduko problema eta kezketarik egunean egungoa ausnartuaz bizi zen gazte kementsua. Oraindik tinta freskoa nabari dute munduko problemaz *Zeruko Argia*-ren *Herriak eta gizonak* eta *Jakin*-en Marcuseri buruzko *Eguzkialdeko Haize horiek...* izeneko saiakera.

Munduak berarekin azaltzen duen molde eta uste zaharrak aztertu eta berritzeko egarria ageri duen ordu honetan, hauen arduraz kezkatu bizi zen gure gaztea. Zeren, era guztietako konzeptuen errebisioa eskatzen den egunetan, hain kezkatu zena ezin zitekeen lo egon. Bere aburuak murgildu zituen gizartearen goren mailako pentsamenetik. Berekiko, hamaika krisi garaitu beharra izan zuen, zentzunez eta bihotzez, ausarti, argiaren bila. Zentzun bakanez, jakin-min sakonez eta kontzientzia garbiz. Errotik aztertu ere, bere pentsamena gazte askoren gidari agertu zuen honek. Izan ere, hamaika gazteren bideak iriki zituen gure alorrean.

Bere izatez honela zelarik, uste gabeko heriotzaren muga sufri-mendurik izan ez bazuen ere, bizitza zehar anitz sufritu beharra tokatu zitzaion. Euskaltzaleoi aspaldiko egoerak ematen digun sufritza espiritualetik aparte, uste zaharrak berritzean, hainbeste aldiz, argi bila, bere konzeptu bideak hautsi beharrean aurkitu zen; eta gizonarentzat zer sufrimendu handiagorik?

Baina, beste batzuek idatziko dituzte bere goresmenak, eta bere zentzuna hain praktikoa zenez, bere erakusbideei jarraikiz, une honetan, egintza bidezko zenbait proposamendu egin nahi nituzke bere gogoari leialki erantzuteko.

Rikardo zenak ohorerik handienak merezi ditu, bere izakerarekin ados merezi ditu, bere izakerarekin ados letorkeen omena. Bere nortasuna ondoen erakusten duena, bere lana izaki, eta gazte askoren ikasbiderako biltzea komeni zaigu. Alde batetik bere lanak eta pentsaerak aztertuko dituenak, eta bestalde idatziaren bilduma osoa:

1) Saiakerazko liburu bat bere bizitza laburki emanaz, periodismu ekingintza, pentsalari bezala jarraitu zuen eboluzioa, euskara eta euskal

kulturari buruzko iritziak, politika internazionaleraz zituen irizpideak, euskal alfabetatze lanen asmo eta eragintza, eta abar, zehatz-mehatz estudiatuko dituen saiakeraz hornitutako bilduma. Bere idazlan eta hitzaldiak lekuko. Lan hau, behar bada, berak hainbeste saiakera argitara zituen *Jakin*-en zenbaki berezi batean eman daiteke.

2) Bere lan guztien bilduma argitaratzea, lehenengotik azkenera, bere ekintza eta pentsamenaren gorabeherak argi agertzeko. Bere bizi-tzan, gazte askorentzat bide irekitzaile izan delarik, bere hilburukoa eragile izaten jarrai bedi. Hemen sartu daitezke zenbait hitzaldi eta lan argitara gabeak, baldin argitara gaberik bada. Lan argitaratuak, gehienak, badakigu *Zeruko Argia* eta *Jakin*-en dituela eta biltzea ezta hain nekeza izanen. Lanok, bere ordenu kronologikoan gaiez sailka jarriaz; esate baterako: *Nazio arteko unea*, *Herriak eta gizonak*, *Saiakerak* (hemen, *Jakin*-en argitaratuak behinipehin), *Euskal kulturari buruz* (zenbait hitzaldi, lan eta artikulua berezi) eta, bukaeran, *Orotarik*, gaine-rako ondakinak bilduko dituen saila.

Honela, lanok, lekzio bikaina izango lirateke gazteen artean ekintza suspertzeko. Izan ere, beste inor bai ote hain urte gutxian hainbeste lan egin duenik? Nork pentsa hogetasei urterako horrenbeste lan burutu zitekeenik? Har dezagun barnegogoz egin dezakeenaren ispilu.

Holako zerbait oinharri harturik, *Jakin* taldeak edo batzorde bat jarri behar luke antolamenetarako. Bere lanok aurkeztuz, bere herrian ome-nezko jaialdi bat eratzea ere bai, gure artean bere gogoak bizirik iraun dezan.

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

ZENBAIT LAGUN

EUSKAL ALFABETATZEA RIKARDO GABE

“Euskal Alfabetatzea” umezurtz gelditu da.

Euskaldun guztiak bezala, dolu-ekzilaren soinu latzak mantu beltz ixil batez estali gaitu gu ere, Rikardoren zuzendaritzapean ari ginen alfabetatzaileok.

Euskaldunak alfabetatu. “Izan ere, zertarako balio dezake zenbait euskaldunek euskarazko idazlan mamitsurik egiteak, baldin Herriak bereganatzen ez badu kultura-ekintza hori?”, –esan ohi zuen.

“Gure Herrian kultura-infrastruktura bat moldatu behar dugu”.

Eta ari ginen.

Herrialdetako ordezkariak eta berak zuzentzen zuen Donostiako batzordeak bi Biltzar Nagusi egin genituen: Donostian eta Eibaren. Beroietan Euskal Alfabetatzearen Araudi probisionalaren ontzat eman zen.

Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait herritan alfabetatze-kanpainak egin dira aurretan.

Orain dela bi hilabete Donostian, lokal bat alkilatu genuen... (aloga, bestelako diru faltaz, oraingoz Arregitarrek ordaintzen zutelarik). Propagandarako materiala, karpetak, artxiboak... hantxe ditugu. Bulego Koordinatzailearen egoitza hantxe ari ginen antolatzen. Hau dena, noski, Rikardok gogotsu eta sendo zuzentzen zuelarik eta A. Irigaray jaunak Euskaltzaindiaren babesa ofiziala eskaintzen zigularik.

Asmorik sendoenak datorren urterako genituen: diru laguntzarik lortzen bagenuen, propaganda bideak sendotu eta gehitu: irratsaioak, paskinak, esku-paperak, festibalak... Herrialde bakoitzean alfabetatzaile sail berriak eratu. Bigarren mailako alfabetatze ekinaldi baterako testo berriak aukeratu eta inprimatu... et.a. "Gailurreraino iritsi behar gaituk", esaten zuen Rikardok.

Orain hutsune ikaragarri bat, lehen lema trinkoa zegoen hartan.

Lehenengo ostiraleko arratsalde eguzkitsua bai arratsalde iluna. Andoainen bildu ginen edo-ta beren bizilekuetan gelditu ziren euskaldun askoren barrunbeetan esan-ezin-ahalako pena. Baina, pena honetan sustraiturik, baita asmo irmo bat ere: "Hik landutako alorrean jarraituko diagu guk ere, Rikardo, nola edo hala".

Euskal Alfabetatzea alor honetako ildo nagusi bat da.

Guri, Euskal Herri guztiko alfabetatzaileoi, dagokigu horretan jarraitzea.

Datorren urteak zinez "gailurra iristerainokoa" behar du izan. horretarako bideak denon artean taxutu behar: Euskaltzaindia, Herrialdeetako ordezkariak, Donostiako taldea, alde guztietako laguntzaileak...

Egingizun hau burutan ateratzea da Rikardori egin diezaiokegun omenaldirik onena, besteak beste. Rikardori omena eta gure Herriari zerbitzua: haren nahia eta honen ona bat baitziren, ez bi.

Izan bekigu bere gomuta samina indar eta arnas.

Agur, Rikardo "joan zatzaizkigu lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik".

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

1970-1972: HERIOTZ ONDOTIK

MIKEL LASA

RIKARDO ARREGI: KULTURA ANIMATZAILEAREN EREDUA

Azkenaldi honetan Rikardo arduratuta zebilen, atzerrian bizi garen ikasle edo ikasle-izandako euskaldunokin. Desbiazioak, amore emateak eta iheskeriak edo omen diren horiek nolabait salatu behar eta europeartzen ari ginela, Euskal Herriko kontestotik at, adierazi nahi zigun Rikardo adiskideak. Europeartzen alegia, azkarregi eta neurritz gain, Euskal Herriaz eta bere inguru eta ingurukizunak ahazturik. Izango dira arrazoiak kritikak ez baitira behinere funtsik gabekoak, baina ez dut behinere osorik ulertu non datzan gure europeartze mixterioso hori, ezpada atzerrian bizi garelako zoilik, ez aukera baten ondoren, beste mila arrazoigatik baino, gero azalduko dudan lez, gure gizaldiaren patua argitzen saiatuko naizenean. Hori baita hemen axola zaiguna eta ez inoren alde ateratzea.

Paradoxa baldin bada ere (paradoxa erraza ikusiko duzue) beti pentsatu izan dut gure artean europeartuena, hitzez eta eitez, Rikardo bera zela. Europear "intelligentsia" markarik nabarmenena, dioten bezala normaltasuna baldin bada (98ko gizaldearen ondorengoak intelektual espainolak "normalidad europea" adierazpenarekin esan nahi zutena gutxi gorabehera), hots, lanerako giro eta bide egokiak ahal izatea, "intelligentsia"ren ekintza efektiboa nahiz eta "éclaté" gabekoa, kultura tradizio batean ondo oinarritua, espiritu idekiera, analisirako joera, sintesi ahalmena, didaktismoa, e.a. Rikardo ari zen mamitzen bere baitan gure artean gutxi bezala, eitez eta izatez ekitez baino hobekiago, hain zuzen ere bere gizarte eta politika ekintza, normalitatea posible ahal izateko behar diren baldintzak sortzeko zuzendua baitzegoen. Hala eta guztiz ere gure egoera nahastu eta triste honetan ("Hemen ere negua badiagu, baina beste era batekoa. Ni behinepein erabat tristetzen hasia nauk. Tristura alde guztietatik... Makila beti duk gogorra..." 1968ko azaroan izkiriaturako gutun batetik) bazekien gordetzen gogo-ekilibrio berezi bat, eta aski argitasun momentuko analisisa egiteko.

Laket zait iduritzea (eta permiti bekit amestea) beste giro eta egoera ideal batean, ikasle bihurritz inguraturiko irakasle zuhur antzo Euskal Herriko balizko Unibertsitate batean, edo eta beste Emanuel Mounier lez euskal "Esprit" berri bat zuzentzen... Oholdiak jandako balizko Unibersi-

tateko aulki baten beharrez, gizarteak gutxietsitako mila aulki izan ditu Rikardok Euskal Herrian zehar. Eta horietarik bat sei urte luze eta nahastuetan etengabe eramana, *Zeruko Argia*-ko politika saila. Presaka, patxadarik gabe, zuzenik makinara jaulkiaz, denbora eta ikaskizunak sakrifikatuz, astero-astero eman ditu Arregik bere analisiak. Bere nortasunaren neurria hor agertzen zaigu beste inon baino ederkiago: jarraipena, analisi joera, sintesi indarra didaktismo ahalmen inbirigarria, “éclate” gabeko ekintza efektiboa. Ez genuen Euskal Herri guztian “herriak eta gizonak” politika sail hobeagorik, ez eta erdal izparringietan ere.

Rikardo ez zen bakardadean, inguruko aide latza ezin jasanik, lan egiten duen horietakoa. Taldean maite zuen lan egitea, kultura-animatzaile jator batj dagokion lez, nahiz eta taldekoek lana erraztu beharrean ugaritu egin (aipatutako politika sailean, pasadan, zerbait egina garenokin oroitzen naiz hau esatean). Klaseetatik ateratzean baxo erdi baten aitzakia aurrez moldatzen genuen asteroko orria Rikardo beti animatzaile genuelarik, ez ideetan soilik, maiz berriketan umorea ekarriaz ere bai, edo ironi xorrotzaz baliatuz erabiltzen genuen auzi-mauzi serioak eztenkatzeko. (Ez zen behinere itoko seriotasunean)

Taldeka lan egitea maite bazuen ez zen lagunarte giro goxoa bilatzearren soilik, zerbait ekiteko giroa giro egokia sortu nahian baizik.

Dohai izugarria zuen jendea inguratzeke eta inguratu hutsarekin konformatu gabe taldeari nortasun berezi bat eman nahian ibiltzen zen. Askotan detaile apurrak ere kontuan zeuzkan taldearen kanpo-aldeko itxura itxurakoa izan zedin. Xehetasun lan hauetan estilista agertzen zen edo eta batzutan gertatu zen bezala arrazoi handirik gabe taldea ez ziren besteengandik nabarmendu nahian, taldeari tankera berezi eta desberdin bat ematearren. Hain arteza baitzen antolamendu lanetarako. Baina hori guztia jatorrizko senari jarraituaz, naturaltasunarekin, bazterrak animatuaz batean, atzaparrak krispatu gabe.

Horrek adierazi nahi ote du kapilismoetan (hots, diletantismo xorrotuaren modu berezi batean) denbora galduz aritu zela? Inolaz ere ez. Susmo txikiena bazterrerazteko hor ditugu Arregik bere buruz bururatu eta obratutako beste zenbait ekintza, herri-mailan eta neurrian. Besteak beste: alfabetatze ekintza, hitzaldiak... Alfabetatze ekintzak batez ere bere errealismoaren neurria ondo agertzen digu. Eta ez da meritu kaxkarra gaur egunean kapilismoaren tentaldiari amor ez ematea...

Azkenean, intelektual tankera baino kultura animatzaile oso batena zuen Rikardo Arregik agian posible ez delako intelektual hutsa izatea gaur egun Euskal Herrian.

Fribourg, 1970

MARTIN UGALDE

RIKARDO ARREGI: POLITIKAREN ATARIAN

Liburu honen sarreran agertzen den “Euskal liburu-egintzaren problematika” jardun honek Rikardoren ezaugarri bereziak baditu. Hemen ageri dira garbi asko bere herriaren hutsak betetzeko larritasun gorria, eta ezin-egoneko berak maiz aipatzen zuen ernegazio “santifikatua”.

Gizon batzuek badute horrelako jaungoikozko edo ezin-egon larri bat: nonbaitetik denbora gutxi geratzen zaiela susmatuko balute bezala. Nik ez dut uste Rikardok estutasun edo presa hau beretik eraginda zebilkienik, herriaren arnasa estuak berak larrituta baizik. Argi aski ikusten zituen harek Euskal Herriaren hutsak eta goseak, eta baita gainezka egiten dioten hondakinak ere. Horrek bultzatzen zuen mutil argi hau lanera, eta baita hasarrera ere; sekula hasarrerik nabaritu ez duten asko izango dira gizonaren eta jaungoikoaren inperuan, eta hasarreak jotako asko jaungoikozko eta gure herri-lanetako zeruan. Bere indar honek legezkatzen ditu berak egin izan ahal dituen hutsak: bestek horrenbeste bagenu!

“Egiazki esan genezake –dio Rikardok jardun honetan, bere hitz berekin laburtuta– euskarazko sailak dauzkaten editorialetatik batek ere ez daukala euskal liburuaren politika bat”, “ez dute liburu jakin batzuek eskriba daitezen erreztasunik ematen”. “Irakurle berriak bilatzeaz ez dira kezkatu”. “Liburuaren erostuna lehengo abertzale zaharra da”, “irakurtzeko *asmoz* (bakarrik) erosten duena”. “Haien bekatu larria da, ez dutela publiko gazte eta politiko bat landu”; eta “merkatu ohi-tuaren saturazioa” heldu da; orain artekoa, ba, “sistima bezala (izan da) literatura gaztea ebitatzea”. “Gauza probatu behar ez duguna da” “mila lan inportante daudela argitaratzaileak ukatzen direlako”. Editorial berri batzuek ekin diote, bainan “ideiok ez zutela gorputz bat hartu”; “liburuaren planning oso bat eduki behar dela” dio, eta azkeneko “berriz-tatu nahi honek ekintzaren ordena aldrebestu du; lehenik teknikazko problemei aurkitu nahi ukan deraute soluzioa”; “hau da, argitarazioaren problema legal eta ekonomikoengatik arduratu direla, eta gero aurkitu dutela ez zeukatela zer atera interesante edo berririk”.

Gero, bere asmoko oinarri horiek jartzen ditu Rikardo'k:

“Euskal liburuaren programazio batek oinarritzko hiru sail hauekin kontatu behar du”: I. “*Kulturaren dibulgazioko oinarritzko liburuak*: Zientziaren eta kulturaren gai guztiei buruzko liburu sorta informe-ekarle bat behar litzake”. “Pentsamentua daukagu haien masimoa 125

orrialde izanen dela, eta minimoa 90. Terminolojiak eta ortografiak batasunari buruzko diktadura bat egongo litzake". II. *"Itzulpen eta saiaera laburrak*: Gaurkoz autorerik ezagunenak euskararen traduzitzea", "autore horien kapitulorik inportanteenak traduzitu eta liburu tipietan publikatu beharko lirake. Honela, gainera, bigarren epoka kalean liburu osoetako traduzioa planteatzeko esperientzia nahikoa logratuko dugu". III. *Literatur-kreazio butseko obrak*: Edozer literatur-klase sartuko litzake honen barrenean, euskarazkoa eta erdaratik itzulia".

Bada editorial berriak Rikardok esaten duena.

Gero, *Politikaren atarian* liburuak berak *Obarra* bat du, esanez liburu hau ulertzeko, egilearen garaia eta giroa ezagutu behar direla; hau dela zientzia politikoaz egiten den euskarazko lendabiziko liburua, politika bera osotasunean behintzat. Politika dela-ta, euskal literaturak berea baduela, baina "politika bera expikatu duen libururik ez da oraindik argitaratu". Euskal Herrian lenengo mailako ikastoletatik kanpora oso gutxi dugula gure gazteen hezierako, eta Unibersitate alerik ere ez; horregatik, ezin izango dela liburu hau "eginkizun horretarako idatzia; ba da ordea herriaren sail bat politikatu dagoena", "hoientzat idatzi da liburu hau batez ere". "Bere eboluzioan, euskal kultura gelditu edo atzeraka hasi arren, ez dira horregaitik zenbait erdal kultura gelditu". "Besteak aurreratu dunetan besterik gabe ezin bazter deza-kegu". "Lehen maila horixe da beraz: erdal kultura aurreratuenak erdietsi dutena eskuratzea eta guretzeta". Bigarren mailarako: "gure buruarekin pentsatzen hasi behar dugu", eta "euskal kulturaren eguneratzean bi dira egin behar diren lanak: besteak ikasi dutena guk ere ikasi eta gurekasa pentsatzen hasi".

Gero badu bere *Sarrera* motz bat, eta hiru jardun edo kapitulu: I *Politika hitzari buruz* (8 orri). II: *Politikologia: politikaren zientzia* (45 orri), eta III: *Politikaren pentsalari handiak*. 1- Platon eta Aristotele, 2- Aquinoko Santo Tomas, 3- Machiavelli, 4- Montesquieu, 5- Hobbes, 6- falta du, 7- Spinoza. 8- Rousseau.

Nahiz eta bat edo beste izendatu, ez du oinarriko liburuen bibliografiarik ematen.

Eta, bukatzeko, liburuaren lehenengo orrira nator: liburu honekin hasten da "Lur" Rikardo beraren asmoa izan zen sail berri batekin, eta bere asmoak: 1) euskarazko kultura osatu eta zabaldu, 2) euskararen batasun eta terminologia eratzen hasi. Eta editorialak bere dituen asmo batzuk ere azaltzen ditu: euskara bakarrik erabiliko dutela, ez dutela

“ideologia bat ezarri nahi irakurlengan” eta “plan hau aurrera eramateko, idazleen eta irakurleen kolaborazioa” eskatzen du.

Azkeneko oharra: “Rikardok hil zenean, liburuia amaitu gabe utzi zuen, eta agirian zegoen haren lana “lehen eskuizkribu” mailan zegoela; lan izugarria izan da inprentara eramateko erakitzea: lan hau Rikardoren anaiek egin dute, batez ere Josebak”.

Zeruko Argia, 1971

JOAN MARI TORREALDAI

RIKARDOREN PENTSAERA

Rikardoren pentsamendua nolabait adierazi nahian, ohar sakabatu hauek prestatu ditut, Joxe Azurmendiren lanetik hartuak batzu, eta Rikardo beraren lanak irakurtzetik gehienak. Rikardo Arregiren pentsaera politikoaz, gehiago jakin nahi izanez gero, Joxe Azurmendik lan sakon bat du *Herriaren Lekuko* (1972) liburuaren sarreran.

Hasteko, hau uste dut: Rikardo Arregi ez zen konformista, oso kritikoa zen, birpentsatzailea zen, eta teoriarik, ez esanik bapatean onartzen zuena.

Ez zen ortodoxia-zalea; nekez ortodoxoa, beraz. “Ortodoxia guztien nazkatuta negok” idatzi zion Joxe Azurmendiri.

1968ko maiatzean idatzi zuen hau:

“Ortodoxiaren kateak ari dira hausten eta hori erabat pozgarria da. Gizarte arazoetan ortodoxiak, inobilismoa esan nahi du. Geldiera, burokrazia, kateak, Eskolastikoen erreinua. Maisuak hau esan du eta kito”.

Eta urte bereko abuztuan, ironiaz:

“Klero berri bat dugu, eliz-gizon berriak ditugu. Liburu asko irakurri dituztenak eta sozialismoaren “ortodoxiara” heldu direnak. Erabat “zientifiko” izatera iritsi direnak. Gainentzeko guztiak, beren burua sozialistatzat baldin badaukate ere, engainaturik bizi dira. Sujetibista, burges tiki edo utopiko batzuk besterik ez dira. hori da materialismo dialektikoaren apaiz berriek diotena. Beroiek bezala behar du sozialista batek, bestela gezurretan ari da, engainamenduan bizi da...”

Bere buruarekin errebixionista porrokatua dela, idatzi du Joxe Azurmendik, eta hala uste dut nik ere.

Rikardo ez zen alderdi batean egoteko gizona. Muga zabalagoak behar zituen. Etiketa politikorik ez du: mirari bat dirudi.

Rikardo ez doa dogmaz dogma. Txillardegik bere garaian salatu zionaren aurka, ez da dogmazalea. Joxe Azurmendiren formulazioan, haren tinkotasuna ez da intolerantzia, haren segurtasuna ez da dogma-keria.

Esan dugu ez zela ortodoxiazalea. Ez abertzaletasunean, ez marxismoan. Belaunaldi berriaren aintzindari zen horretan: topikoak desegite-ari ekin zitzaion, demitifikazioa lortu nahi zuen.

SOZIALISMOA

Rikardoren sozialismoa nolakoa zen?

Ez dago batere garbi arazo nazional eta arazo sozialaren artean egin duen lotura edo sintesia, ez da xehetasunez ezagutzen: baieztapen batzuen bidez bakarrik adieraz genezake.

Gauza pare bat bai, garbi dago:

- nazio-zaletasun hutsik ez zuen nahi
- baina ez eta nazio arazoa baztertuko duen sozialismorik. Horixe salatuko du behin eta berriz: 68ko maiatzean (gogora Paris, gogora batez ere Txekoeslobakia):

“Ortodoxiaren eta burokraziaren kate hauek haustearekin batera abertzaletasunean indartzea da gertaera horien seinale-rik nagusienetakoa.

Sozialismoak bere baitan darama nazioartekotasuna, baina zenbait sozialisten iritzian, estatu sozialisten arteko araua nazioartekotasuna denez, honen izenean inperialismorik gogorrena saldu eta ezarri izan da taktikaren eta beharraren izenean”.

Eta beste leku batetan:

“Abertzaletasuna eta rebisionismoa, hara hor gure etsaiak”, zioen Moskuko irriatik Txekoeslobakiako gertaerak komentatuz. Ezin zitekeen hobeto mintza. Inperialista batentzat gauzarik okerrera eta beldurgarriena horixe bait da: mendekoak abertzale bihurtzea. menderatzailearen abertzalekeria itsuaren aurka, menderatutakoen abertzaletasun jatorra esnatzea...”

* * *

Rikardoren pentsaera politikoa, hitz klabea hau zitekeen: askatasuna. Askatasunagatik hautatu du sozialismoa.

Rikardoren sozialismoa definitu beharko bagenu, sozialismo humanista, Dubceken antzekotzat joko genuke. Ezkertartasun berri baten alde agertzen da beti Rikardo.

Txillardegik Rikardogatik *Tierra Vasca* aldizkarian idatzi zuen: “Marxismoaren ortodoxiatik eta espainol trotskismotik hurbil egon zen bolada batez...”. Ez dut uste.

Formula askoz aproposagoa iruditzen zait Saizarbitoriarena (*Kultur Deia*): “Oinarrizko abertzaletasun serio eta sakona eta marxismoaren aurrean oso sensible”.

Rikardok bere burua belaunaldi berrikotzat jotzen du. Eta hala da izan. Belaunaldi berri honek, haren iritzian, bi ezaugarri ditu: radikaltasuna eta sozialismoa.

Hain zuzen belaunaldi berri honen hasieran munta handiko gertakari bat dago: euskal gazteriak marxismoarekin topo egiten du. Rikardok ere izan du esperientzi hori, berak honela aitortuz:

“Neronek ere aitortu behar dut nire bizitzeko une bortitzenetakoak, pozez eta bildurrez betetakoak, Marx eta marxistak irakurtzen hasi nintzanekoak direla. Uste nuen marxismoa erabat baztertu behar zen zerbait zela, ez zuela baliorik, eta bat batean zenbat gezur esan zizkidaten konturatu nintzen, eta marxistak zenbat eta gehiago irakurri eta orduan eta zabalago egiten zitzaidan mundua, gizona eta historia...” (*Sozialismoa modan dago*).

Baina nola jasoko du marxismo hau?

Birpentsatua, noski.

Badakigu Euskal Herriko marxismoaz nola tipologia egin zuen, eta zein joera onartzen zuen:

- 1) *Marxologoak*. Marxengan hasi eta bukatzen duten Eskolastikoak dira.
- 2) *Marxistak bigarren epean*. Euskal esentzialistak. Gero dira marxista.
- 3) *Sasi marxistak*. Aurrerarlari eta progresista izateagatik; marxismoen artean ere ezkerrekoena aukeratzen dute. Hauentzat, marxismoa, justifikazio da.

- 4) *Marxismoarekiko irekiak*. Jatorrenak. Marx birpentsatu egiten dute hauek, zirkunstantzi konkretuetan. Ez dira dogmatikoak.

Berak, nire ustez, bere burua azken hauen artean ikusiko luke. On derizkiona marxismotik hartuz. Ez du, esaterako, marxismoaren materialismo dialektikoa onartzen. Honela dio:

“... trszendentzian sinesten dugunok ezin dezakegu onartu materialismoak bere baitan duen inmanentzi hutsa, bertakotasun soila”.

Hau da sozialismoarekiko eta marxismoarekiko Rikardoren jarrera, nire ustetan.

ABERTZALETASUNA

Esan dugu lehen ere: ez nazioa baztertzen duen sozialismorik, eta ez naziozaletasun hutsik nahi du Rikardok. Biak batean bai: “Gu sozialis-mora abertzaletasunetik heldu gara”, zioen hil baino 10 egun lehenago.

Euskal abertzaletasunean topikoak deseginaz, mitoak hautsiz hasi zen. Hortik sortu zitzaizkion etsaiak.

Abertzaletasun klasikoaren edo “zaharraren” aurka altxatu zen. Bi puntutan bereziki:

- euskaldun/fededun binomioaren aurka
- abertzaletasunaren modernotasunik ezaren aurka.

1) *Euskaldun/fededun.*

Binomio honen kontrakoa zen zuzenki “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu” artikulua. Bazirudien euskaltzale izateko kristau behar zela izan, nahitaez. Joera horren kontra altxatzen da Rikardo, kristau bezala eta abertzale bezala: “Jainkoaren ideia euskal kristauok zertan zuzendu behar dugun...” dioenean, bere burua inplikutzen du.

2) *Abertzaletasunaren modernotasunik eza.*

Gehiago kezkatzen du bigarren puntu honek: euskaltzaletasuna nekazaritzari eta tradizioari lotua zegoen. Aurrera begira beharrean atzera begira zegoen abertzaletasuna.

Hau da gogorki salatzen duena: abertzaletasunak ez zuela integratu, jadanik XIX mendean hasi eta gerra ondoren hainbeste indartu den hiritartzea eta industriadzea. Desfase bat. Herria kalean bizi zen, baina baserria zen eredu.

Rikardok ezin zezakeen jasan euskaldunaren eta baserritarraren identifikazioa. Ezin zezakeen onar Peru Abarka euskaldunen pertsonifikazioa izatea.

Kalea/baserria dikotomia, urte haietan, bizi bizia zen.

Abertzaletasun moderno bat proposatzen zuen Rikardok: euskaltzaletasuna eta sozialismoa elkarrekin ezkonduko zituena, batak bestea menperatu gabe. Honetan ez zen gehiegi definitua. Horregatik, nekez esan dezakegu arazo sozialaren eta arazo nazionalaren artean zer sintesi egingo zukeen gaur hemen.

[Eskuizkribua]

Tolosa, 1970

JOAN MARI TORREALDAI

RIKARDO ARREGI KAZETARI*LAUAXETA saria Rikardori*

1965 urtean “Lauaxeta” saria eman zitzaion Ipar Euskal Herrian Rikardori. Alegia, urte hartako artikulari hoberena bezala.

Bi urte zen Rikardo kazetaritzan hasia zela. Eta hori *Zeruko Argia*-n. Kazetari bezala Rikardo *Zeruko Argia*-ko gizona da, nahiz eta *Anaitasuna*-n 10 bat atikulu argitarara eman. Aldizkari hauetatik aparte, argitaratu zuen ia dena *Jakin*-en egin zuen, baina hemengo lan hori pentsamentu-gisakotzat jotzen dugu. Eta ez dugu hemen aipatuko, haren pentsamentu-haria aztertzeke ezpada.

Esan bezala, 1965ean jaso zuen Rikardok “Lauaxeta” sari hori. Urte hartan, 42 idazlan argitarara eman zituen denetara. Ordurarte emandakoak, 124 dira. Baina bere lanik aberatsena, gerokoa dela denok badakigu. Eta hau ageri dago, idazlanen kopuruari bezala lan horien muiari eta garrantziari begiratu ere. 195 dira gerokoak. Geroko urte horietan guztietan (eta ez kopuruz bakarrik neurturik) 1968 urtea izan zitzaion mogituena eta emankorrena (77 idazlan publikatu zituen). Halere, ez da dudarik, 1969 urtea ez zuela bukatu kontuan izan, urte erdian hil baitzen, 51 artikulua argitaraturik.

Norbaitek horren ongi azaltzen duenarekin bat nator, dioenean: “Rikardok sari guti irabazi zuen, asko merezi”. Hori bateko.

Edo besteko, Rikardo berarentzat sarigarri nor den jakinda, sari hori are mereziago zuela ere esanen dugu. Hona Rikardok berak, hemen Baionan saria jasotzerakoan zer esan zuen:

“Ez dut nik sari hau merezi. Sari hau bestaldeko isilpeko albistari ez-ezagunek merezi dute nik baino areago. Haiak dituzte merezimenduak; arriskutan eta beren izena aipatu ere egiten ez dela beren lanari ekiten bait diote ausartki”.

Idazlanetako gaiak

Rikardo kopuruz epaitu nahi duena, oker dabil. Haren langiletasuna ondorioztatu lezake horrela, ez besterik. Eta ez da guti.

Rikardoren asmoak eta ideiak irakurri beharrean bere idazlerroak irakurtzen dituen ere, ez dabil zuzen. Gehienbat nazio-arteko arazoak erabiltzen ditu, aztertzen eta kritikatzin. Edozein albistarik egin ohi duena, noski. Baina kasu, asmoa bitarikoak baita hor:

- euskaltzalea bere ghettotik ateratzea, bat.

– zentsurak premiaturik denok baitakigu dagoneko askatasunaren Paradisuan ez garela bizi,

– zentsura-giroa dela-ta, kanpokoaz mintzatzea Euskal Herriaz mintzatzea da Rikardorentzat. Hori dela-ta, norbaitengan zein gai hautatzen den jakiteak garrantzirik baldin badu, Rikardorengan da hori. Erabilteko maneraz kanpo, ez bait da berdin zein gai hartzen den.

Bestalde, gure artean kontzeptu abstraktuak badute (izan dute, agian) konkretutasuna. Gaurko egoeraren ukapena, hori gutienez. Esaterako, hitz hauek denak, oso abstraktu izanik, oso konkretu idazten ditu idazleak eta irakurtzen jendeak: sozialismoa, askatasuna, iraultza, justizia, bakea, kultura, egia. Adibide garbia, euskal kanta berria duzue.

Jose Azurmendik dioenez:

“Amets eta protesta eta borrokarako tresna bihurtu zen eskua herbestera luzatzea”.

Haren idaztarazoak zeintzu ziren?

Rikardoren ekintzaren muina, honela ikusiko du Alfabetatze Batzordeak:

“Gizartearen eta gizarte honetako gizon eta emakume guztien arazoa berekin zeramakien beti Rikardok. Denok dakigu hori izan zela bere bizitzako kezka, eta horretxek eraginda izan zitzaigun horrenbeste problema eta gorabeheratan bide-urra-tzaile, gidari eta eragile”.

Kezka nagusi horiek xehetu egin behar lirateke. Ez dugu orain eta hemen idazlanen zerrenda luze bat ematerik, alferriko ez bada ere, aspergarri bai, izanen litzakeelako. Nolabait gaiok bil-inguratzeko, gaiardatz batzuk bilatu nahi izan ditut:

– Europa: Euskal Herriak Europan izan dezakeen esperantza / Euro-
paren jaiotezina / Herrien Europaren beharra...

– Demokrazia: Kristau demokrazia eta bere ahulezia / Sozial demo-
krazia eta erreformagintzaren ataka...

– Sozialismogintza: Sozialismoaren azterketa zenbait / Estatu sozia-
lista askoren inperialismoa / Sozialismo gizatiar baten beharra.

– Ezkertiargoa: Ezkerrismoaren konfiantza, borrokak / Ezkerrismoa
iraultza bide berri? / Ezkertiargoaren bi-balioetasuna...

– Herrigintza: Teoriaren arriskuak / Mamirik gabeko praxi baten
ezina / Ihesbideen salaketa...

Gaiari gagozkiola beti, eta haren politikazko lanak aztertuz, politikazko albistaritza bi eratakoa izan dela esan dezakegu:

– herri eta gobernuen gorabeheren berri kritikoa ematea, baitipait herri tipien eta askatasun bila doazenak plazara atereaz.

– eta bigarren, Jose Azurmendik dioena: “Rikardoren azterketak berak zientziatzko politikaren maila ganean baino gehiago mogitu ziren haren azpian, hots, etika politikazko eta sozialaren heinean”. Ongi, biziki ongi ikusia, ene iduriko. Bide honetatik, oharturik eta oharkabe, bietara, ekintzaren bi neurbide erabiltzen dituela uste dut: errealitatearen eta idealaren arteko joan-etorria batzutan, baina gehienetan: errealitatearen eta posiblearen artekoa (benetako etika politikazkoa, alegia). Eta beti, gizartea positiboki aztertuz. Horregatik ez da moralismoan erortzen.

Rikardoren eboluzioa eta idazkintza politikoa

Aipaturiko lan horietan, munduko gorabeheren oihartzun hutsa ote?

Edo-ta, lan horietan bere “nagusiaren ahotsa”, “la voz de su amo”, “la voix de son maître” ote zen Rikardo? Alegia, beste norbaiten edo zerbaiten izenean, delako teoriagile baten edo dogmaren baten eraginez mintzatzen ote zitzaigun?

Bestalde, han eta hemen bere iritziak abandonatuz, utziz, hautsiz doala ikusiz, jarraikitasunik ba ote duen galde genezake, barnean ea batasunik lorturik ote zuen.

Bi hitzetan hiru galderok bil-laburtzeko:

Bere buruz pentsatzen ote zuen ala inguruak agindurik, edo auto-reen batek edo eskolaren batek?

Galderari ez zaio falta ez zentzunik eta ez gaurkotasunik.

Ez Savonarola eta ez Stalin

Mementu jakin batetan, Savonarola eta Stalin-en kutsua hartu baldin bazion ere Txillardegik, berari ez baino asmatutako beste norbaiti erantzuten ziola garbiki adierazi zion Rikardok.

Rikardo dogmaz dogma ibili zenik ez dut uste. Inoiz bere dogmatxorik bazuen ere, liberatuz-liberatuz joan zelakoan nago. Ez zen konfesionala. Konfesionalismoaren kontrako bere erasoak, gogorrek dira. Gogorrek eta ugariak. Nahiz eta bere konbikzioak eta iritziak indarrez eta borrokalari gisa azaldu, Rikardo ez zen dogmakoaia. Gauza bat da segurtasuna, eta beste bat dogmakeria. Tinkotasuna gauza bat, eta oso bestelakoa intolerantzia.

Politikazko ekintza baterako, mamiaren, doktrinaren, ideologiaren, programaren beharra ikusirik eta eskaturik ere, ez zuen horrek denak

besterik gabe kontentatzen, ez betetzen. (Eta hemen berenarekin beste zenbaiten joeraren salaketa irakurri behar da):

“Tentazio hau izugarrikoa dela badakit. Neroni ere askotan erori naiz horretan. Liburuetan zientzia bat ikasi duzula uste duzu eta orduan dena erraza da, errealitatea zeure “zientzia” horretara egokitu besterik ez duzu. Honela, denentzat soluzioa eta esplikazioa aurkitu duzu...”

Errealitateari buruz, etengabe, hurbilketa batean izan behar dugu. Etenik gabe eguneratu behar dugun hurbilketa”. / 1968

Eskolatuaren beharra eta premia aldarrikatzen zuen, euskaltzale zaharren joeraren kontra. Baina eskolarekiko mesfidantza ere behin baino gehiagotan azaltzen du, eta hau teoriazale eta zientziazale zenbaitzuren aurka, laboratoriorio-gizonen kontra.

Errealitateko datoetan ideiak eta joerak sustraitzen ez baldin badira, seguru asko berebiziko teoriak eta utopiak jasoko dira, baina horixe besterik ez dira izango: utopiak.

“Demostratua dago, basian, bulegokrazietatik urruti, buruzagietatik aparte, batasuna lanak berak sortzen duela. Lanak sortzen du batasun-sena, Herriak, euskalgintzan lanegiten duenak noski, batasuna maite du ekintzan. Erasoaldian batasun honek bakarrik salba gaitzake”. / 1969

Rikardoren idea politikoak

“Gu sozialismora euskaltzaletasunetik heldu gara. Euskaltzaleok, gure Herriaren hautasunaz kezkatu gaudenok, gara iraun, eguneratu eta borrokalaritu garenok gaurko abangoardi-borroken zentzuan. Ezin zitekeen bestela izan. Gure planteamentua, izan ere, kalitatez, muinez, da diferentea, ez kantitatez, besteena bezala. Ez da ekonomia, ez da administrazioa, ez da teknika. Zerbait gehiago da”. / 1969. 10 egun hil aurretik.

Hau idazten duena, Rikardo Arregi da. Baina ez 1964ko Rikardo gaztea, abiatzen zegoen hura, ez. Bere politikazko heldutasunera iritsia zen Rikardo azkeneko urtean, nire ustez. Eta bide luzea ibilia zuen. Kristau demokraziatik hasi eta marxismorainokoa hain zuzen.

Kristau demokrataren ideiekin hasi zuen politikazko ekintza Rikardok. Baina konfesionalismoa ez bait zuen maite, ez eta demokrazia-era honen erdi-bidea, laster abandonatu zuen, eta sozialismoa onartu. Halere, sozialismoa bera positiboki aztertzen geroxeago hasiko da. Eta berdin gertatuko zaio sozialismo-era bezala hartzen zuen marxismoarekin.

Gainera, Sozialismoa, Rikardorentzako, jokabide bat zen, programa bat baino gehiago. Eta marxismoa, aztergailu bat. (Trazendentzia onarutzen zuela oroit). Rikardoren politizkasko ideiak eta jokabideak istudio baten bidez ezagutzen dituen Azurmendik (1972) idatzitakoa ematen dizuet nik orain:

- Askatasunagatik maite zuen Rikardok sozialismoa. (Askatasunari uko egiten ziotenean, orduantxe kritikatzten zituen gogorki estatu sozialistak Rikardok).

- Marxismoa konzeptu-mailegu edo prestamu bat izan zen Rikardoren pentsamentuan. Beraz, marjinal, eraskin, Rikardoren baitan.

Rikardoren pentsamentu-eboluzioaren erdigunea, maratila, gakoa, giltza, zein da? Hitzaldi-žati honen hastapenean egindako galderari erantzunez (hots, bere pentsamentuaren jarraikitutasunaz), esan dezadan, bere axolen eta arduren eta bere pentsamentuaren joan-etorrien ardatza, *Askatasuna* dela. Eta hau hiru mailatan:

- norbanakoarena (Mounier-en eraginez), horregatik URSS-eko intelektualen alde, etab.

- nazio-arteke herritxoena (Hirugarren Munduko arazoketa ugaria).

- askatasun ekonomikoa (politika-askatasun formalaren kontra).

Puntu honetan, azken ohar bat:

Abertzaletasuna ez zuen Rikardok sekula ukatu, ez baztertu, abertzaletasun hori gaurkotzeak (sozialista bero-bero eta abertzale porrokatu izanik) eta dinamizatzeak lanak eman bazizkion ere.

Borroka giroa eta Rikardo

Haren ingurua ezagutuz uler daiteke soil soilik Rikardo. Haren idazkiak ez dira sekula denboragabeak. Egoera jakin batek sortutako kezka dira, eta haiei erantzun nahiez emandako arrapostuak. Agerian ala izkutan, polemika kutsukoak dira beti.

Rikardoren borroka, idazle eta euskaltzale bezala, hiru frentetan eman da:

1. lehendabizi, ezarritako politika eta estruktura eta kulturaren kontra. Esate baterako, bere idazle-lana prentsa ofizialaren ikusalderdiari beste bat jartzean pentsatzen zuen. Prentsaren isiltasuna ideologikoa den bezala Rikardoren aipamenak ere bai. Intentziaz kargaturik.

- euskaltzaletasunaren barnean:

2. euskaltzaletasun zaharraren kontra / kontserbakorra, burgeskoia, topikozalea, esentzialista, eskolastikoa ikusten zuelako.

3. euskaltzaletasun berriaren alde eta bila, 1960 inguruan sortu zen berrikuntza horren alde. Zein diren, Rikardoren gardiz, gazteria honen ezaugarriak? Radikalismoa eta sozialismoa, borrokalari eta errebolatua izatea.

Hor ikusten du, orobat, bere burua eta bere lana:

“Ikonoklastak omen gara. Eta egia da. Sustraitik hasi nahi omen dugu. Eta horrela da. Lehendabizi desegin, gero jasotzeko. Estruktura, moldea, muina ukitu nahi, azalekoarentzat mesfidantzarik handiena izanik. Folklorekeria, baserritasun hutsa, kapitalismoa, burgesia, kontserbakorra, etab. gure esan eta idatzietan behin eta berriro kondenatuak izan dira. Hitz batean esateko, mitoa, ipuina, eta besteratzea desegin nahian, desipuitze gogorrean sartuak gara. Eta guztia gizonaren izenean, gizarte gizatiarrago baten izenean. Eta hortxe dago koxka”. /1967

Rikardo kazetariaren zailtasunak eta lorkizunak

Kazetari-hizkuntza eta idazkeraz zenbait ohar eginen ditut:

Hara nola ikusten zuen Rikardok kazetaritzaren premia:

“Neure idazlanak berriro irakurtzen egon naiz. Orain dela bost urtez geroztik, euskal aldizkarietan argitaratutakoak. Eta zenbaiteraino diren traketsak ikusi dut. Asko eta asko gaizki idatzia, korrika egina, guti landua; iritzien enparantzara etengabe iritziak argitaratuaz.

Zorionez ala zoritxarrez, euskalgintzak lan zaratatsuak eta brillanteak baino, gehiago, lan iraunkorrak behar ditu. Lan iraunkorrak eta zeiak, isilak, baina etengabe egindakoak. Zenbat asmo eder eta probetxugarri ez da azaldu azken urte hauetan. Baina horietako zenbatak iraun dū? Egia esateko, oso gutik.

Dudarik gabe, saiaketa guzti horiek derrigorrezkoak ziren. Asmo guzti horiek ere planteatu behar ziren, hazia ereitea beharrezkoa bait zen. Baina gure eginkizunaren maila zein den kontutan hartu behar dugu. Euskaldungoak irauten badu, gure belaunaldiak ez du ondorio handirik utziko. Izan ere, etxe bat egiterakoan, lehenik oinarri sendoak ezarri behar dira; etxea jasotakoan, hauetaz ez da inor gogoratzen, ez daukate nortasunik. Errealitate honetaz jabetzen ez bagara, handinahian hasiko gara, eta ez dugu ezer askorik egingo.

Zenbat ez ote da gaur egun lan isilean, euskalgintzaren itxaropenari zutik iraunarazten diona: Jakina, jakitunentzat, jaun han-

dientzat, ikasientzat, etab. langile traketsak dira hauek; idazle zatarrak, gramatika ezagutzen ez dutenak; heuren saiaketa gehienetan oker jokutzen dutenak. Baina besteei falta zaien zerbaitek badaukate: *egiten* dutenak dira. Eta hauek, gaurkoz, besteak baino inportanteagoak dira euskararentzat. Hauek gabe, beste guztiak ez dira posible”. /1968. “Gu traketsok”.

Mila zailtasun eta gehiago bilatu zuen Rikardok bere kazetagitza. Azter ditzagun batzuk:

- edozein kazetarik dituenak:
 - denborarik eza, presa, bi aldiz pentsatu gabe egin beharra.
 - eta gure artean, profesionaltasunik ezarena. Rikardok berak dioenez: “Profesionalaren obligazioak ditugu, honen abantailarik gabe”.
- herriaren egoerarenak, baitipait analfabetismoarenak:
 - analfabetismoa, euskararekikoa: Alfabetatze Kanpaina
 - politika arloan: politikarekiko mesfidantzaz aparte, politikazko jakintzarik eza. Horregatik mailarik apalenean eta adibide jakingarriz osatuz egin behar lanak. Pedagogiazko hizkuntza erabili beharra.
- eta, azkenik, hizkuntzaren egoeratik sortuak:
 - euskara moderno baten falta edo ahultasuna. Euskara, askorentzako, sentimentuzko balio bat zen, eta ez idaztresna. Gizarte moderno batetan komunikabide izateko gaitasunik ez bide du (ez zuen, batez ere). Eta Rikardoren kasuan, hizkuntza politikoa eginik gabe zegoela, Rikardok berak, justifikatze-koan, aitortzen duenez.
 - kazetetako euskara praktikoko baten falta. Puntu hau biziki interesatzen zaigula uste dut, geroari buruz. Alor honetan Rikardok egindako lana aztertu aurretik, on litzateke idazlea bera testuinguruan ongi situatzea. Rikardo ez zen deusetik sortu.

Kultur berbizitearen hasiera ondokoa da Rikardo. Hastapen horretan *Euzko Gogoia*, *Egan*, *Jakin* eta *Huntaz eta Hartaz* jarriko nituzke.

Literatur ederraren bezbizite ondokoa. Literaturaren goraldi honetan (aurre historian Salvatore Mitxelena eta Orixe) eta gero, Iratzeder, Mirande, Otsalar, Gandiaga, Aresti jartzen ditularik. Eta hauen ondokoak: Lasa, Sarasola, M. Azurmendi, Hartzabal, J. Azurmendi, etabar.

Puntu hauek ikutu nahi izan ditut, ez noski gerra ondoko literatura-
ren historia egiteko asmoz, baizik eta bi gauza adierazbidetzeko:

- bat, Rikardok zergatik errezeloz ikusi zuen beti literatura ederraren, batez ere poesia-idazkintzaren, nagusitasuna gure artean.
- eta bigarren, Joxe Azurmendiren ondorioetara heltzeko, alegia: euskarazko idazkintza guztia literatura ederragandiko dependentzia oso bat sofritzen gelditu zela.

Menpetasun hau garaitu nahiz ibili da Rikardo beti. Eta horretan bide bat, kazetariarentzako bide bat urratu eta erakutsi duela pentsatzen dut.

Rikardoren idazkera ikusiaz, kazetaritzan erabili beharko den hizkuntzaz jabetuko gara, eta hau gure etorkizunerako oso garrantzizkoa daiteke. Joxe Azurmendiren (1972) lumaz arakatuko dut Rikardoren hizkuntza-erabilkera, behin ere ahantzi gabe azken intentzioa, alegia, nolakoa behar lukeen kazeta-idazkerak izan.

“Rikardok, bere idazkeran, kontuz etzuri edo ebitatu zuen poesiaren kutsu oro. Oinezkoan euskara praktikoa egin zuen beti. Eta *implicite* behintzat, tradiziorik ez dagoen barrutietako euskararen problema jartzen zuen horrekin: albistaritza, zientzia, etab. Ez bait da lesikoaren gorabehera bakarrik horietan dadukaguna. Ez baita nehun ikusi poesiako hizkuntzaz zientzia emateko baliatzen. Bere bokazio politika-zalearekin batean ikusi behar da haren hizkuntza. Rikardoren euskara txarra da. Literatur zale baino gramatika-zaleago den jende askok berehalaxe antzeman zion horri, gehiago ikusi gabe halere. Baina hemen Rikardoren literaturaren araberako jokabideei ere begiratzea ez da muntarik gabekoa: ondo ikusten bait da bertan Rikardo zuzen zuzen gauzara, problemaren bere ustezko gakora doala, ez forma edo itxurara, inguruetara. Objektutasuna nahi duela lehen lehenik, ez hautemate subjektibuen espresioa. Gure artean beste inorentzat baino premiazkoagoa egiten da, orduan, Rikardo baitan euskara eta idazkera, estiloa bereiztea. Nahi haina sintasiko eta morfologiazko faltarekin ere, Rikardoren hizkuntza bizia da, segurua, konkretua, artez mugatua, plastikoa, zehatza, (kasu guti batzuk kenduz gero behintzat) emozio dardaririk gabeko deskribitzailea. Bere esanahi justuarekin dago hitz bakoitza. Labur, baina ez motz esaldia. Ez arabeskorik eta ez barrokorik daduka bere idazkerak, eta gaurko estiloarekin ohitutakoari inpresio gehiago egiten diona, sujetibutasunaren apar oso guti dago bere izkribuetan.

Jokabide honekin, esan bezala, azkeneko denborotan gure literaturan gailendutako moduaren aurka zegoen Rikardo. Gusto surrealista edo espresionista kolore eta sujetibutasun zaleak bait dira nagusi. Bide okerrek biluzia gorriagoan agertarazten duten Rikardoren hizkuntza, ostera, albistariaren objektibutasun nahiak ezartzen dion formaren errealismo-rik gordine-narekin finkatzen da kasu bakoitzean: zehaztasun asko bezain pathos gutirekin. Rikardok langailu zuen luma, eta haren idaztea lanegitea zenez gero, esku-estiloa da berea, lan-estiloa. Buru buruan jotzen dio iltzeari, eta bere hitza mailua da. Estiloa xukundu-edo, egiteko astirik ere ez bait zeukan ("Guretzat, Euskal Herriaren belaun galdu honentzat, beta izatea da loteriarik handienetakoa", *Jakin* 35,25). Ezta bere burua hitz ederezko aureolaz inguratzeke ere. Gauzak trinko eta zuzen esatea zen bere lehenengo agindua eta eduki ere dohain aparta zeukan eginkizun zail horretarako".

Ene ustez, hauxe litzateke kazetari-estiloa, nolabait esateko.

Rikardoren kazeta-lanen hautapen bat laster agertuko da. Han ikusiko dugu, idazkeraz eta mamiz, Rikardo bizirik dagoela. Eta Rikardo bizirik dago egiten digun faltagatik ere.

[Eskuizkribua]
Baiona 1972

1978-1979: 10 URTE GEROAGO

KULTUR DEIA

RICARDO ARREGI, IMPULSOR DE LA ALFABETIZACIÓN EN EUSKERA

Entre hoy y mañana, alrededor de treinta literatos, profesores e intelectuales vascos homenajearán en Andoain la figura de Ricardo Arregi, primer promotor e impulsor de los cursos de alfabetización, que falleció en 1969, a la temprana edad de 27 años.

Con una perspectiva y resultados entonces impensados, Ricardo Arregi se nos presenta hoy como personaje clave dentro del proceso cultural y político experimentado en Euskal Herria a partir de la generación del 64. Escritor, pensador y hombre de acción, Ricardo se nos ofrece en todas sus facetas adelantado a la época que le tocó vivir. Tenía imagen de futuro, cuando los amigos que le rodeaban se encontraban cultural e ideológicamente en las catacumbas. A su muerte, Ricardo Arregi era ya, entonces, todo lo que hoy es la sociedad vasca, con todas sus discrepancias y contradicciones.

Cerca de 40.000 alumnos en los cursos de alfabetización vasca, una producción librera en alza, una profesionalización cultural y política, avalan la herencia de un joven que vivió breve pero intensamente.

Ricardo Arregi, que ya en 1968 proyectaba llegar a ser diputado por Guipúzcoa, posee la gran virtud de no poder ser etiquetado. Ningún grupo cultural ni político ha podido hasta la fecha reivindicarlo. Aquí y hoy, ello es por sí mismo significativo.

Deia, 1978, Maiatzak 4

EGIN

RIKARDO ARREGI, EUSKAL GIZARTE HAUTSIAREN LEKUKO

Euskal gazteriak ez du hainbat gauzatan bere lekuko izan zen Rikardo Arregi ahaztu. Eta horrela, Andoain bere jaioterriko gazteriak omenaldi bat eskaini nahi izan dio hil honen lauean eta bostean, eta omenaldi honetan, Euskal Herriko zenbait idazle eta kulturgizon ezagunek parte hartu ahal izango dute, Rikardoren giza tamaina ager asmoz.

Andoainean jaio zen 1942 urteko irailaren 22an. Donostiako Apaiztegia hamar urtez egon ondoren, Ekonomi Zientziak ikasteari ekin zion, 1964an detenitu zuten arte, EGikoa ote zen edo salatuz. Rikardoren traiektorian garrantzi handiko garaia izan zen soldaduskarena: Hementxe sakondu zituen, nonbait, gerora bere pentsamenduaren habe izango ziren puntu eta urrats nagusienak.

EUSKAL POLITIKAGINTZA

Rikardoren ustetan, euskal errealitatea euskal literaturan agertzen zitzaigun topiko hura baino askoz ere zabalagoa zen. Baserria, Agirre-
ren “Garoa” edo Orixeren “Euskaldunak” poeman agertzen den Euskal Herri idilikoa ez zitzaion laket, hura soilik ez baitzen Euskal Herri. Kontestu honetan, Rikardo izen zen gure lehendabizitako politikoa industrializatzea sakontasunez hartu zuena. Eta industrializatzek eka-
rritako ondorenak ere: euskararen beherakada, inmigrazioa, euskal era-
kundeen hil-zoria...

Eta “Euskaldun zertarako?” polemika *Zeruko Argia*ren orrialdetan hedatu zenean, Rikardok honako hauek erantzun zituen: Euskaldun izatea ez da gure izaera konkretu bat besterik. Eta guzti hori da. Eta Rikardok, euskaldun izatea definitu baino lehenago, gizon izatea definitzen zuen. Harentzat, euskaldun izatea zerbait dinamiko, eraginkor eta aldakor zen, ez hesi hestu batzuren mugetan gordetako zerbait.

Eta Rikardoren kontzepzio honen inguru-minguruan, belaunaldi berri bat jaioa zen. Hainbat ekintzetako belaunaldi berria. ETA, eta *Jakin*, sindikalismoa eta klandestinitateko politikagintza, alfabetatze kanpaina eta euskararekiko planteamendu berri eta ausartak, ikastolak eta mugimendu kultural indartsua...

Guzti hauek ez dira, noski, belaunaldi berriaren fruitu bakarrik. Baina belaunaldi berriak pauta zenbait markatu ahal izan zuen. Eta pauta markatzaile sendoena, urte zail haietan, Rikardo Arregi izan genuen, nahiz alfabetatze kanpainen sorreran, nahiz *Zeruko Argia*-ko orrialdetan kazetaritza ulertzeko era egokiago batean, nahiz *Lur*-en sorreran, nahiz zenbait bilera eta eginkizun politikotan.

Bere pentsamendua laburtzea ez da lerro hauen eginkizuna. Lerro hauek Mendaron zoritxarrezko istripu batez hil zen Rikardo Arregiren giza tamainaren pintzelada batzu eskaini nahi zituzten. Rikardo izan baitzen gure lekuko, eta euskal problematikaren pedagogogo handi.

Egin, 1978, Maiatzak 4

MANUEL LEKUONA

RIKARDO ARREGI NERE GOGOANEAN

Rikardo Arregi eta gu biok elkarrekin bizi izanak gera amabi-bat urtean, aren guraso Pedro Arregi ta Benita Aranbururen (G.b.) Eguzkialde etxean. Ondo ezagutzen nuan. Aren bizitzaren testigu naiz, beraz.

Nik ezagutu nuanean apaiz-gai zen Donostiako Seminarioan, karre-raren lau edo boskarren urtean. Aren apaiz-karreraren asieran, beraz, ez nuan nik bat-ere protagonismorik izan. Ezta karrerari laga zionean ere.

Seminarioko ikaskizunetaz gañera, denbora berean Batxilleratoko ikaskizunak egiten jarduten zuan, udarako illabeteetan, Andoaingo "Sasierrotako" ikastolan.

Nere, urte aietako Rikardo'ren imajiña, langille aundi imajiña da. Langille aundi: eta denbora berean -itxuraren kontra- mutil alai ta argia.

Elkarrekin bizi arren ni oso gutxi beartzen ninduan ark bere gauze-tarako, esku artean zerabilzkian gauzetarako.

Bein -Teolojiako Ikastaroan- lan berezi bat egiteko asmoa agertu zidan; lagun artean egiteko lan berezi bat. Orixe'ren idaz-lanen atzer-keta bat egin nai zuten. Ikastaro arruntetik kanporako lan "extra". -Olakoxe sortzalea zen gure mutilla, kreatora. Bere kontuko lan-zatia uste det ederki egiña izango zala, artan ezarri zuen alegiñaren itxuraz. Neri erakutsi zidan bere zatia, oso ederra ta orijinala zen; ez det gogoan zer gaitakoa: ideoloji, literatura...

Etxean nolako seme ta senide ta etxetiar izan zan, adierazi izan det nik iñoiz, orain baño leenago, nunbait.

Senideakin broma-zalea; aitarekin itzal aundiko, bañan konpianza aundidun ere; amarentzat ume on.

Askotan sentitzen bait nuan -bere betiko lanean aspertzen zanean- salto bitan eskalleratan beera bere gelatik sukaldera jeisten, amarekin itz-aspertutxo bat egitera, gero berriz ere bere gelan mekanoan tiki-taka eten gabe jarduteko...

Beste ordu bat, eskalleratan beera jeisten sentitzen nuana, Errosario Santuko ordua izaten zen: aitak "Tira, Errosarioa" esaten zuan bezain laister, gure Rikardo, bere lana bertan beera utzita, berriz ere salto bitan an jetsiko bait zen sukaldera, sei pausu alde batera ta sei pausu bestera, distraitu-antzean Errosariooko "Agur, Mariak" gurekin batean jalkitzero...

Rikardo'ren beste giza-karakter nabarmena –etxetiar izateaz gañera-gizon oso benetakoa izatea zan, gizon autentikoa. Bere ideologian beti benetan zebillena. Eta bere benetasun autentiko ori, neretzat, bi aldiz agertu zuen batez ere –edo agertu zitzaion–. Eta aietan bata izan zen Rusia Txeko-Eslovakian sartu zanean. Trauma gogorra izan zan, Rikardok orduan bere baitan sentitu zuana. Rikardok anartean Rusiako Agintarientzat iritzi eder bat zuen. Bañan Txeko-Eslovakiako gertakari ura gertatu zan ezkeroztik, Rusiaz mintzatzan zanean, rusitarrentzat etzuan leen bezelako iritzi onik agertzen.

Beste bein bere betiko benetasuna agertu zuana, neretzat, bere Sinismenarekiko krisisean izan zen. Gai ortan krisisen-bat izan bear zuala gauza sinistekoa zan, bera zan benetako kritiko autentiko izanik; bañan nik, igerri, ez nion igertzen; bañan bein entzun nion alkarriketa batetik argitu zitzaidan gauza.

Autobus batean Iruña'tik gentozen. Euskaltzaindiaren Batzar batetik. Ni autoaren aurre-aldean, eta Rikardo ta beste batzuek atze-aldean. Oien artean apaiz bat.

Nik elkarrizketako itzak erdizka entzuten nituan. Bañan au bai, naiko argi. Rikardo'k Sinismen-krisisa aipatu zuan, eta alkar-izketa artako apaizak “broman” bezela artu zion krisis-kontu ori –aizeak eramaten duan orbela bait-litzan, alegia–. Bañan Rikardo'k serio-serio, onela erantzun zion: “Ez beza pentsa, gero, gauza ori broma danik; gauza serioa da. Seminarioan ikasitako Santo Tomas'en “Quinque viae” diralakoak, gaur bilakatzeraz iritxi ziran; eta ez pentsa trantze ori bromako gauza danik. Eskerrak, orain berriro Paris'en egin dan kongreso bati; ateismoari buruzko Kongreso sakon arri zor diot nik, nere krisis ura superatua, krisis arri gañak artua. Aita Jesuita bat izan zen, Kongreso serio artan, Santo Tomas'en probantzak baztatu ondoren, beste bide berri bat proposatu zuana; sinismenaren fenomeno beste kategoria berri batean azaldu ziguna. Arrixe zor diot nik nere krisisaren gañarte, superatzea”.

Aitormen ederra benetan: Sinismen baten benetasuna aitortzen duana, alde batetik, eta gure Rikardo'ren bizitzako trantze estu bat argitzen diguna bestetik.

Krisisaren gañak-artze orri egoki dagokion beste aitormen bat ere bai bait det nik aitortu bearrik. Rikardo il zanean neronek artu nuan karta baten aitormena.

Rikardo'ren gorputza oraindik ia bero zegola, karta bat artu nuan. Kartaren bidaltzalea, entzutez besterik ez nuan nik ezagutzen, eta ba

zirudian, kartazalea ordu artan kontzientziako deskargu egin bearrez mintzatzen zitzaidala. “Rikardo bueltan etorria zegola” zion kartak, eta orixe esateko, beste egitekorik gabe egiña zirudian.

“Bueltan etorri”. Krisisatik bueltan.

Batek baño geiagok igertzen zioten nunbait mutillaren krisisari. Bañan baita, jakin ba zekiten, krisisa goititua zeukala; eta ori aditzera eman nai neri. Karta Rikardo’ren adiskide batena zan. (Mikel Lasa-rena).

Kartak ni ez ninduan arritu. Neronek ikusia bait neukan nik mutilla azkeneko Garizuman, gure Berrozpe’ko Elizatzuan bi aldiz Jaunartzen.

(Berak bere bizitzako “Diario” dalakoan –uste bait det olako diarioa eramaten ere zuala– an azalduko lirake krisis guzi oien gora-beerak. Mereziko bait luke ezagutzea, bizitza eder ta aberats zer-nolako bear bezela ezagutu ditzagun). (Hu ken, naiz)

[Eskuizkribua]

1978

ANTTON HARANBURU

SAIZARBITORIA: “RIKARDOK IREKI ZION GAZTERIARI KEZKA KULTURALA”

Belaunaldi berriaren aintzindari aitortu dugu Rikardo. Idazle eta pentsalari zen aldetik, euskal kulturgintza berri bat landu zuen beste zenbait idazle gazterekin batera. Gogoan dugu *Zeruko Argia*-ko “Nazio arteko unea”, Rikardo berak zuzentzen zuena, edo “Gazte naiz’ saila. Rikardoren garai hartako euskal idazleen lorategian, Ramon Saizarbitoria, Andu Lertxundi, Ibon Sarasola, Xabier Lete, Andoni Sagarna, Begoña Arregi, Ramuntxo Kanblong eta besteren izenak dira aipagarri. Hauetako batekin, Ramon Saizarbitoriarekin, hain zuzen, istripu hartan bere ondoan zeraman lagunarekin mintzatu gara Rikardoz.

LEHEN POLITIKO PROFESIONALA

–DEIA: Nor izan zen Rikardo?

–R. S.: Rikardo pertsonaia klabe bat izan zen. Haren nortasunean bere politiko eta kultur dimentsioa aipatu behar dira. Urrutira begiratzen jakin zuen Rikardok. Nik esango nuke bera izan zela gure lehen politiko profesionala. Ez zen gazte txoro bat, besteok bezala. Guk ez genuen etorkizunaren imajinarik, baina Rikardok bai. Gogoan dut nola egun batez entzun nion Gipuzkoako diputatu izan behar zuela.

Rikardo estrukturaz hitzegiten hasi zen; parlamentarismoa jarraitzer zuen. Gu orain ari gara politiko dimentsio hori deskubritzen baina Rikardo ongi jabetua zegoen horretaz. Horregatik diot, bera zela lehen politiko profesionala. Ideia desberdineko jendearekin ongi etortzen zen eta jendearekiko harremanetan demostratzen zuen bere politiko izatea.

Bestalde, oso tipo organizatua zen; bere denbora eta indarrak ongi neurtzen zituen. Juergista ere ba zen eta juergak ere organizatu egingo zituen. Nekatuta zegoenean, Barojaren hirugarren tomoa hartu eta irakurtzeari ekingo zion. Igande gauetan, berriz, kinielak zuzenduz irabazten zituen sos batzuk. Soldadutza oso inportantea izan zen beretzat. Ezer ez egitera behartu zuten eta han ere adaptatu egin zen; gazetuta etorri zen gainera. Azkenik, bere imajina ere lantzen zuen. Txukun eta garbi jantziko zen, bere gorbata eta guzti. Listoa zen, guapoa, ona... ez dakit, Euskal Herriko amak nahi zukeen semea zen Rikardo.

-D.: Rikardoren politiko dimentsioan sakonduz, zein zen bere jarrera ideologikoa?

-R. S.: Politika mailan Rikardo ez zen ailegatu zeharo definitzera. Gurean beti egon den eta oraindik dagoen langile arazo eta kuestio nazionalari ez zion erantzun klaro bat eman. Bere lan ideologikoa mamitu gaberik gelditu zen. Konturatu gaitezten, abertzaletasuna kontestu ezkertiar batean sartzen ari dela Rikardoren garaian. Politiko erresistente bat izan zen Rikardo. Ez dago dudarik, Rikardo oinarrizko abertzaletasun serio eta sakon baten bidetik zebilela, baina aldi berean egia ere da, marxismoaren aurrean oso sensible zela eta abertzale ortodoxo batek egingo ez zituen kontaktoak egin zituela. Hala ere, etiketa politikorik ez zuen Rikardok eta zabaltasun oso batez jokatzeko zuten politikan ere. Oso gizon errespetagarria egin zen bere baloreengatik.

-D.: Gaurko ikuspegi batetik, nola ikusten duzu Rikardo?

-R. S.: Rikardo ez du inork errekuperatu, bereganako egin. Inork ez dauka gaur "Rikardo gurea zen" esaterik. Rikardo denona da. Bada lan berdina eginarren maila hori lortu ez duenik.

Denok errespetatzen dute Rikardo; batetik bere lan inkuestionablea izan zelako eta bestetik, harreman pertsonalak ongi landu zituelako. Dena den, interrogante handi bat da gaur Rikardo. Nik uste bere pragmatismo politiko hori ez zuela abandonatuko. Zer sintesi egingo zuen arazo sozial eta nazionalaren artean? Galdera honek ez du erantzunik, nire aldetik behintzat.

ALFABETATZE KANPAINA BERE IDEIA NAGUSI

-D.: Zer zor diogu Rikardori, kultur gizon zen aldetik?

-R. S.: Rikardo euskal prentsa bat, euskaraz egindako prentsa bat behar zela ongi jabetu zen. Bere ideia nagusia alfabetatze kanpaina-rena izan zen. Euskal Herri alfabetatu bat aurrakusi zuen eta kondizio kultural bat lortu nahi zuen. Oinarrizko liburuak egitera jarri zen, politikako eta ekonomiako gaiak landuz eta "Lur" editorialaren sortzailetako bat izanik.

Nik uste, askotxori deskubrituarazi zigula euskal kulturaren mundua eta berari zor diogu lan honetan abiatu izana. Rikardok ireki zion gazteriari kezka kulturala eta baserritarkeria gabeko mundu kultural bat hastea izan daiteke bere lanik inportanteena.

Azkenik, ez da ahaztu behar, Rikardo ibiltari paregabea izan zela. Euskal Herri osoa korritu zuen hitzaldiak emanez eta kontzientziatze lan handi bat egin zuen belaunaldi kezkatu bat sortuz. Eta hau behar bada, idazlanen bidez baino gehiago, hitzaldiñ bidez lortu zuen.

Deia, 1978ko Maiatzak 4

MARTIN UGALDE

**RIKARDO ARREGIREN OROIGARRI
ASKATASUNA ETA SABINO ARANA**

Andoain-en, bere jaioterrian, eratu zaio maiatzeko 4 eta 5ean, eta *Hauzolan* erakundeak antolatuta, Rikardo Arregi zenari omenaldi bat.

Ez da aurrenekoa izan, eta ez da azkenekoa izango.

Merezi du Rikardok hainbeste.

Euskararen langile eta eragile bezala, kazetari argi bezala eta gure herriaren sozial-arazoa euskal senez jazten jakin eta emateko adorea, indar morala izan zuelako.

Herri baten dinamika ikus ezin edo nahi izan ez dutenentzat, eskandalagarri.

Marxismo inportatua dogma bat bezala ezarri nahi izan digutenentzat, errebisionista.

Bide berriak ikus bezala ireki nahi dituztenek behar dute ezker-eskuineko bi muturretatik erasotzen dizkietenak hartzeko pazientzia franko.

Mahai-borobil bidez eratu zen bi eguneko omenaldi hau. Lehenengoan, gizona bera, honen biografia, alfabetatze-kanpaina, Ipar Euskal Herriaz zuen ikuspegia, Idazleen Elkarte eta bere irudi publikoa izan genituen gai. Bigarrengean: Rikardoren pentsaera politikoa eta soziala, eta *Zeruko Argia, Jakin eta Lur*-en egindako lanak.

Ni, lehenengo mahai-inguruko izan nintzen; hala ere, ondoen eza-gutzen nuenaz laburki hitzegitea eskatu zidatenez, bietako gaiak aipatzea suertatu zitzaidan.

Rikardo atzerritik ikusita ezagutu nuen: nire herriko lagun min baten semea zenez, berehala sortu ziren elkarrekiko harremanak, eta hil zen egunaren bezperan, 1969ko uztailak 9, ni Venezuela-tik etorri berria, bere senide batzuekin bazkaltzera etorri zen Hondarribiako gure etxean.

Eta asmo horiek eraginda, hara hemen nire bi puntuak:

1) Atzerritik nola ikusi nuen. 2) Hil bezperan zertaz aritu ginen.

Rikardok *askatasuna* zuen eragile nagusi.

Beste gauzen artean hau erakusten zuen zuhurki: *askatasunak* ez duela leku eta garai guztietan esan nahi berdina. XVI. mendeko gizonak eta herriak ez dutela XX. mendeko herriak eta gizonak askatasunaz duten kontzeptu bera. Gizonak eta erakundeak aldatzen joaten dira, eta garai bateko euskaldunak *berea zen* askatasuna defendatu zuen bezala, *gaur guk* herri izaten jarraitzeko behar dugun askatasuna defendatu behar dugu.

“Askatasuna”, bat da, noski.

Baina, XVI. mendean moralak, naziotasunak, hizkuntzak, zeruak eta gizarteak zuten esan nahia gaurkoa ez den bezala, “askatasuna” hitzak ere ez du gaur arazo berdina planteatzen. Gaurko askatasunak beste gizartegiro batean bizi behar duenez, behar du gizarte honetan nabarmenki diren zampaketa bereziei erantzun egokia eman. Eta, hala, gaurko inguramen konkretu honetan, ekonomiaz zanpatuta sentitzen den gizona ez da aske; sozialak eta politikoak diren aukerak egiteko gai sentitzen ez den gizona ez da aske; eta gizon osoaren askatasuna nahi badugu, behar ditugu gaur mundu guztian, eta gu tarteko, sozial, ekonomi eta politikaz gizonaren askatasunak dituen aurpegi nabarmenak oso kontuan hartu.

Hau, marxismoak ernetu duen giza eskubidearen alderdia, behar dugu, beraz, kontuan hartu.

Baina marxismoaren irudi osoa dogma bat bezala inportatu nahi digutenentzat badu Rikardok eskaera, esijentzia: gizon ekonomiko eta sozial horrek badu Herri bat, eta herri horren gizona eta gizon honen

kultura, zanpatuak badaude, gizon honi hizkuntza ahotik kendu dionaren aurkako borroka, *askatasun borroka* bihurtu da.

Askatasuna-ren neurria garai bakoitzeko *gizona* eta *herria* dira, biak.

Herri eta gizon honen nazionatasun eta kultura-bidez sentitzen ditu ekonomi eta sozial arazoak.

Hil zen bezpera-bezperan, Sabino Arana izan genuen gai nagusi.

Ados ginen gizon handi honen garrantziaz, honi gure herriak zor zionaz. Baina gazteak bazuen bere puntua. Harek egindakoa ohe bat bezala hartu, eta bertan lo geratu behar ote genuen, ala hortik aurrera sortutako gaurko arazoak gureak, gure sorbaldan hartu behar genituenak, ote ziren.

Eta, beste ikuspuntu batetik begiratuta, lehengo auzi bera berriz ere: Arana Goirik, berea izan zen garai hartan, gizon oso bezala jokatu zuen, bere ondasuna eta osasuna Euzkadiren zerbitzuan jarri eta galdu arte. Gizon bati ezin zaio gehiago eskatu. Gainera, aurretik inork izan ez zuen ikusteko jenioa eta argia, eta ekiteko kemena, izan zituen. Ezin zaio eskatu, esaten ziren bere hitz bizi eta "santasekula"z hornitutako harekin, *gaurko gure arazo guztientzako erantzunik*. Sabino Arana gaur bizi balitz, ez zuen orain dela laurogei urteko munduari erantzuteko izan zuen ekintzaren modu ber-berean jokatu: bixtan da harrezkero abertzaletasuna zabaldu dela, defendatzeko guda gogor eta odoltsua egin behar izan duela, eta ondorengo espetxeak, heriotzak eta zanpaketa erasoak ondo aski ezagutu dituela. Eta gure herria ez dela, ez lehen, ez atzo, eta ezta gaur ere, munduan bakarrik bizi, eta gainontzeko lurraldeetan gertatu denaren arrasto eta kutsu guztiak nahitaez gurekin ditugula.

Hala, eta eraso ikaragarri horien ondoren, gure herria ez da lehengo.

Gaurko gure herriaren egoera zer den guk dakigu.

Erantzunak, *guk eta gaur* eman behar.

Gure herria azkenaldi honetan kaleratu bada, industrializatu bada, gure herriak eta euskarak industria eta kale-giro berrira eta gaurko sozial komunikabideetara egokitu behar du.

Hortantxe ari zela, lanean, hil zitzaigun Rikardo.

Orain dela bederatzi urte laster, uztailearen 10an.

Honen puntu argi-xuxenak, eta adierazi nahian jartzen zuen bihozaren eragin mina, ez zaizkit inoiz ahaztuko.

Deia, 1978.05.10

IBON SARASOLA / RAMON SAIZARBITORIA

RIKARDO, GIDARI

Ez da guretzat erraz hil den eta nolabait ere euskal gizon ospetsuen luminarian sartu den adiskide batez mintzatzea. Tokia merezi zuen eta hor dago. Baina guretzat, bere oroitzenaren inguruan gertatu den *haloa trabagarri gertatzen zaigu hezur eta haragizko gizonari hurbildu* nahi gatazkiekion momentu honetan. Orduan ere bazuen plaza-gizona inguratzen duen begirunezko kontsiderazioa baina eguneroko jardunean ondo presente genuen topiko bada ere haren alderdi gizatiarra haloetan geratzeko.

Rikardoz hitzegitea eskatzen zaigunean, lehendabizi, gezurra dirudien arren eta berarekin harrèman pertsonalik izan ez zituztenek edo bere obraren bidez bakarrik ezagutzen dutenek beharbada ulertuko ez badute ere, zera datorkigu gogora: Kurasaalean *Zeruko Argia*-ko gure orriak zirela eta, hainbat adiskide eta lankide, oso ondo zertarako ote zen ez genekien bilera egin ondoren, pote bat hartzera joaten gine-neko adiskidea. Zeren ez baitzen guztiok noizbait padezitu behar izan dugun intelektual aspergarri eta gai bakarreko horien tankerakoa. Rikardo ez zen intelektualaren karikatura. Bizitzaren alderdi guztietan nahi zuen eta zekien parte hartzen, dantza-lekuak, tabernak eta liburu-tegiak testigu.

Gu txepelago ginen, gehiago jo genuen literatur aldera –literatur zaletasuna txepelkeria bezala hartua izan baita gure artean zorionez ala zoritxarrez– baina beragandik ez genuen inoiz sumatu geure lanari buruzko ironiarik; horrela *Zeruko Argia*-n edo gero editorial bat proiektatzerakoan bera izan zen literaturak testuinguru hartan behar zuen lekua aitortu zion lehena. Rikardoren irudi hori gorde nahi dugu: Duverger-en azken artikulua irakurri ondoren hain gogoko zuen Baroja edo Sartre, Camus (oi *L'Homme revolté*), Weil eta gure material ohizkoa irakurtzen.

Langilea zen; bera izan zen nazio eta sozial arazoak uztartzen eta euskaldungoaren ideologia tradizionala astintzen hasi zena, baina hori mundu guztiak daki eta ez gara gu beharbada egokienak puntu hone-taz iharduteko.

Eta ezer gutxi esateko gara gu egokiak agian zuentzat ez dakigu baina guretzat garrantzizkoena dena zera da: bera izan zela euskal kulturaren munduan sarrerazi gintuen pertsona, eta gertakizun horrek gure bizitzen ibilbidea markatu duela betirako.

Jakin 10, 1979

ANJEL LERTXUNDI

RIKARDO, IDAZLE

Rikardo idazle zen batipat, eta gure problematikaren pedagogi lana idazkien bidez egin zuen batipat. Hala ere, ez zen literato, hitz honen zentzu hestuenean behintzat.

Idazle zen, eta haren idazkietan agertzen zaigun lehendabiziko puntua, nortasun politikoa da. Idazle motari begiratuz gero, berriz, Rikardo kazetari zen, eta, hain zuzen ere, Lizardik gerra aurretik hasitako joera ausartari jarraitu zitzaion lehendabizikoa, ene ustez. Eta kazetaritzan adierazi du garrantzi guztia, eta adierazlea ez da adierazia ahal den garbien eta egokien, direktoen esango genuke, emateko tresna eta tramankulu besterik. Ez dago, beraz, Rikardorengan, halako interes eta irrikia estetikorik. Rikardok ongi zekien euskararen iraupena ez zegoela, lehen etapetan, estetizismotan. Rikardok funtzionaltasun baten zerbitzuan ipini nahi izan zuen euskara. Eta funtzionaltasun horren araberak ulertu behar da zerabilen euskara.

Funtzionaltasuna, lehenik, direktoa da, fruituak bapatean jaso behar dituenak. Era honetan, garbizaletasuna edo garbizalekeria sobran daude. Euskal irakurleko urriak euskaraz zer jasoko horren inguruan ihardun behar zuela euskal kazetari batek ulertzen zuen Rikardok.

Funtzionaltasunak, bigarren, errekurtsu errazak eskatzen ditu. Berrogei botoi ezberdin dituen labadora ez da funtzionala. Eta Rikardok ez zuen euskara berrogei botoi zailtako hizkuntza bilakatu nahi. Era honetan, ihes egingo zion hizkuntza beraren zailtasunari, ez ihes egiteagatik, postura bakartzat, berak zeraman lanean, hartzen zuelako baizik.

Rikardoren funtzionaltasunak ez zituen beste bide etapak ukatzen. Hain zuzen ere, esan beharra dago, eta oso garbi, Rikardo erabat irekia zegoela beste mota batzuetako esperientziatara. Ongi jotzen zituen espresibitate berrien inguruko bilakaerak. Hala ere, eta hau ere esan behar da, ez zen Rikardok hautaturiko bidea. Lizardiren hura gogoratu beharko genuke berriro ere:

Bide berriak?

Ez! Bide guztiak! (Itz lauz)

Azterketa literario baterako zenbait puntu erabilgarri:

1. Adjetibazioaren erabilera juxtua. Titularretan tamaina egoki batean erabiltzen zituen adjetiboak. Gehiago esango nuke: Ez zuen ia behin ere adjetiborik erabiltzen. Eta titularrei buruz diodana berdin

kunplitzen zen bere artikuluetan ere. Jakina da adjetibatzeak juizio mota bat dakarrela. Jakina da kazetaritza, nahiz aseptiko ez izan, jui-zioen aurka dagoela, kazetariak gertakizuna irakurlearen aurrean ipini behar duela, irakurleak hauta dezan bere juizioa. Honela bada, puntu hau azterketa baten beharrean dago Rikardoren lanen baitan.

2. Kazetaritzarekin jarraituz, eta Euskal Herriko orduko unea kontutan harturik, Rikardok beste gertakizun politikoen bidez aztertzen zuen Euskal Herriko egoera. Hau da, Biafrari buruzko artikulua batetan gehiago hitzegingo zizun Euskal Herriko egoeraz Biafrakoaz baino. Zer esan nahi du honek? Faxismo garaiko lerro artean hitzegiteko beste mota bat asmatu zuela Rikardok. Eta Rikardok asmaturiko mota honi gerora idazle asko jarraituko zaio.

3. Hiztegiaren kontutan, Rikardok ez du beldurrik erdal hitzak hartzeko garaian. Gogora, Rikardok bere idazkietan politikaz hitzegiten zuela batipat, baina politikagintzako hiztegia egin eta hedatu gabea zegoen garai hartan. Berak egokitu egin behar izan zuen makina bat hitz. Era honetan, hiztegi aberatsik bada bere idazkietan.

Arin-arin, hona hemen zenbait puntu interesgarri. Rikardo Arregi euskal idazle on bat izan zen. Euskarari funtzionaltasun bat aurkitzen saiatu zen. Eta euskarari funtzionaltasuna emateko, euskara hori funtzional egin behar zuen.

Horregatik eskaini zion bere bultzakada guztia euskara batuaren kontuari. Hortik ikusi baitzuen euskararen iraupena.

Jakin 10, 1979

1989: 20 URTE GEROAGO

ORRIA/JOSEBA ARREGI

RIKARDO ARREGIREN GARAIAN EGINKIZUN ZENA, GAUR ERE EGINKIZUN

Rikardo Arregi 1942an Andoainen jaio zen eta 1969an, 26 urte besterik ez zuela, kotxe istripu batez hil zen. Esan liteke, ordea, bizirik dagoela oraindik, arnasberritu egiten bait gaitu gaurkotasun apurrik ere galdu ez duen Rikardoren obrak.

Bizitza laburra baina oparoa izan zen berea, berarengandik hain urte gutxitan horrenbeste jaso zuen euskal kulturak hutsune nabarmena nozitu behar izan zuelarik. Miresgarria da, benetan, 26 urte besterik ez izanda bere obrari darion mardultasuna, nahiz kantitatez hala kalitatez, eta bere pentsamenduaren heldutasuna.

Artikulista aparta –hirurehunik gora dira berak idatzitako artikulak– astero idazten zuen *Zeruko Argia*-n, 1965 urtean Lauaxeta saria irabazi zuelarik, urteko artikulugile onen bezala. Saiakerak ere ugari idatzi zituen. Hizkuntza, abertzaletasuna, nazio arazoa, sozialismoa eta marxismoa, fedea, herrigintza, politika... gai ugari jorratu zuen Rikardoren lumak, batzutan haserrea eta beste zenbaitetan ironia, baina beti ere zorroztasuna zerion lumak.

Andoaindarrengandik hainbat errekonozimendu jaso da. Horrela, berak aldarrikatutako herrigintzaren ildotik, bere izena zeraman kultur talde batek (*RAKT*) lan ugari egin zuen 77-80 urteetan. herriko kale batek bere izena darama, 1979an eraturako udalak hala jarrita. Joan zen uztailaren 15ean, berriz, *Andoaingo Seme Kuttun* izendatu zuen Udalak, eta omenaldi iraunkor gisa bere izena eramango duen Kazetaritza Sariaren lehen edizioaren erabakia kaleratu zen egun berorretan.

Rikardo Arregiren bizitzaz eta pentsamenduaz hitzegiteko Joseba Arregirengana jo dugu. Rikardo zenaren anaia, Euskararen Aholku Batzordeko Idazkari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilari izana, gaur ere, bigarren aldiz, Kultura Kontseilari da Joseba Arregi. Rikardoren bizitza ezezik, obra ere ondo ezagutzen du, sakon aztertua baitu. *«Rikardoren adierazgarritasuna, bizitu zituen biru krisi nagusietan –fedeari, marxismoari eta euskaltzaletasunari buruzkoetan, alegia– askatasunezko planteamendura iristean datza: sinesmena bai, baina*

askatasunean: marxismoa bai, baina modu liberal batetara eta gizona errespetatuz: euskaltzale bai, baina fanatismorik gabe, metafisika egin gabe baina, aldiberean, beste inori utzi gabe beste metafisika baten ize-nean hori esplikatzen», esan digu Josebak, beste hainbat gauzaren artean, Rikardori buruz. Guk hemen guztia, nahiz eta interesgarria izan, sartzerik ez eta ahal duguna ahalik eta ondoen azaltzen saiatu gara, zuretzat, irakurle.

Orria.– Zer da Rikardoren haurtzaro eta gaztaroaz oroitzen duzuna?

J. Arregi.– Andoaingo Basteron jaio zen Rikardo, eta bizi ere etxe hartan bizi izan zen bederatzirte arte. Gu denok bezala, lehenengo ikasketak Sasierrotako ganbaran egin zituen. Hamar urterekin Seminarioako bidea hartu zuen eta, garai hartan Apaizgaitegiko ikasketak konbalidatu gabe zeudenez, aitaren aginduz, udako hilabeteetan Sasierrotan prestatzen zituen irailleko batxilergo ofizialeko azterketak. Horrela egin zituen batxilergoko lehen urteak.

– Zein afizio zituen gogokoen?

– Ez dut bere afizio berezirik gogoratzen, oso ttikitatik liburuatarako zuen afizioa eta gogoia ez bada. Horretaz gain, garai hartan seminaristek izan ohi zituzten afizio normalak ditut gogoan: ikasturtean zehar Seminarioan ikasi eta ikasi jardun ondoren, uda partean igeri egitea eta mendi aldera buelta batzuk ematea. Hori bai, Seminarioan izan zuen halako afizio-bokazio berezi bat, scout mugimendua hain zuzen ere. Bultzatu asko bultzatu zuen scout mugimendua, Seminarioan talde asko sortu zuelarik.

– Nolabait laburtzekotan, beraz, liburu artean murgildutako gazteztzat kontsidera liteke Rikardo.

– Bai, zerbait azpimarratzekotan liburuatarako afizioa azpimarratuko nuke. Oso ikasle ona zen, batez ere filosofia alorrean gaitasun handikoa. 20 urterekin Seminarioa utzi eta hil zenean amaitzear zeuzkan ekonomia ikasketei ekin zien. Halere, nire ustez azken garai horretan aurkitu zuen bere benetako bokazio intelektuala, politologia alegia. Esango nuke, filosofian zuen oinarri sakona politologiara aplikatuz erabili zuela, bere irakurketetako zatirik handiena azken urteetan, bere liburutegian ikus litekeenez, alor horretara zuzenduz.

– Leku bat baino gehiagotan irakur liteke honako hau: «intelektuala eta ekintzailea zen Rikardo Arregi». Definizio horrekin bat al zatoz?

– Bai, bi alderdi horiek bazituen Rikardok. Halere, nire ustez Rikardoren joera eta benetako bokazioa, baita gaitasuna bera ere, ekintzaile-

renean baino handiagoak ziren alor intelektualean. Hausnarketa, ikasketa eta idaztea ziren Rikardoren joera nagusiak. Garai hartan, ordea, 1965-1969 urteetan esan nahi dut, ia ezertxo ere ez zegoen herri honean: ez zegoen unibertsitatearik, ez euskaraz egindako liburu eta aldizkaririk... hutsunea nabarmena zen. Horregatik tokatu zitzaion Rikardori ekintzaile ere izatea, gauza horiek martxan jartzeko lanetan murgiltzea alegia. Baina bere benetako bokazioa bestea zen, eta bokazio horren ondorioz idatzi zituen saiakera eta artikulua dira, nire iritzian, bere izaeraren elementu adierazgarrienak.

— *Batek baino gehiagok esana da Rikardo bere garaiko euskal gizarte eta politikaren ikuspegi berritzaile izan zela. Zertan gauzatzen da berritzaile izate hori?*

— Urte gehiago bizi behar izango zukeen hori Rikardoren baitan zertan gauzatzen den guk jakin ahal izateko. Nik esango nuke itxaropen berri bat eskaini ziola herri honi, garai hartarako handia zen pauso bat emanez: hau da, gazte izan, mundura begiak zabalik eduki eta abertzale izan zitekeela erakutsiz, munduan gertatzen zen guztia euskaraz eta euskaltzaleen ikuspegitik adierazi zitekeela frogatuz. Horretan izan zen berritzaile, zeren eta kontutan hartu behar baita garai hartan euskal mundua katakunbetan zegoela: esate baterako, euskal kazetaritza aipenaz zegoen, eta, jakina, inor kazetaritza euskaraz hastea berria zen; berria zen bezala politika internazionalari buruz euskaraz hitz egiten hastea; berria zen marxismoaz euskaraz jardutea, edo Marcuseri buruz euskaraz eztabaidatzea; berria zen, baitere, alfabetatzearen beharra planteatzea...

— *Berriak ziren bezalaxe euskal liburugintzaren alorrean Rikardok martxan jarri zituen lanak, ezta?*

— Jakina, berria zen editorialak egitea, baina editorialak ez euskal gai buruzko liburuak euskaraz argitaratzeko, edozein gauzatzat euskaraz idatzitako liburuak kaleratzeko baizik. *Lur* editorialarekin zuten asmoa, esate baterako, Frantziako «Que sais-je?» bildumaren moduko zer bait euskaraz egitea zen, mundu zabaleko gaietaz euskaraz idatzitako dibulgaziozko liburuen bilduma bat alegia. Esan liteke, beraz, euskara euskal gaietaz ezezik edozein gauzatzat jarduteko hizkuntza izan zedin bideak irekitzen izan zela berritzaile.

— Nolanahi ere, berritzailetzat ulertzen dena aurreko guztiarekiko haustura baldin bada, ez dut uste Rikardo, urte batzuk gehiago bizi izan balitz, azken sentidu honetan berritzaile izango zenik. Aurrekoa ezagutzeko aukera izango zuen neurrian, nik uste ikusiko zuela euskal

kulturaren esparru zabala berritu baino gehiago zabaldu edo handitu egin behar zela.

– *Artikulista bidea ere jorratu zuen, era guztietako gaiak aztertu zituelarik. Izan al du Rikardok orduan irekitako bide honek jarraitpe-
nik?*

– Galdera honen harian –eta ez bakarrik artikulista lanetan baizik eta gainontzeko gauza guztietan ere bai– sortzen zait niri kezka handia. 1965etik 1970erako urte haiek herri honen irakite ideologikoko garaiak ziren: edozertaz hitzegiten zen, kanpoan idatzitako guztia jasotzen zen, bertan artikulatu ugari idazten zen eta eztabaida izugarriak zeuden. Nire inpresioa da geroztik guzti hori hil egiten dela: geldiuene izugarri bat ematen da. Geldiuene hori, nire iritzian, Euskal Herriak izan duen beste arazo batekin lotuta dago: biolentziarekin, hain zuzen ere. Herri honetan biolentziaren bidea irekitzen den neurrian, eztabaida ideologiko hura moztuta geratzen da. Orain, azken urteotan, ari da berriz ere eztabaida guzti hura berreskuratzen. Esango nuke, bada, urte guzti horietan artikulista mailan beherakada handi bat ematen dela. Orain, azken urteotan, ari dira sortzen artikulista berriak, eta nik uste badagoela, irakite ideologikoa ez bada ere, halako irakite literario bat. Azaldu dira artikulista laburrak, edozein gaitaz artikulatu laburrak idazteko gai direnak eta gauza zoragarriak idazten dituztenak. Badirudi tunel luze bat pasa ondoren orain dela 20 urte egiteko geratu zena egiten hasiak garela, gaurko baldintzetan noski.

– *Euskara kultur espresabide eta eguneroko bizitzarako tresna bezala aldarrikatu zuen Rikardok, horretarako alfabetatzearen beharra planteatu zuelarik. Gauzatu al da hori ondorengo urteotan?*

– Hori ez da guztiz gauzatu. Rikardoren planteamenduen arabera, euskara edozertarako tresna izatea litzateke kontua, eta sentidu horretan alfabetatzea ez da gramatika asko jakitea, liburuak irakurtzeko eta norberak beharrezko dituen gauzak idazteko gai izatea baizik: beste modu batera esanda, euskara dibulgaziorako tresna izatea. Nik uste ildo horri ez zaiola eutsi, euskara erabiltzearen poderioan ikasteari alegia. Hizkuntza bera objektu duten alderdiak landu dira gehiago.

Nolanahi ere, alfabetatzea zen Rikardoren helburua, eta ez euskalduntzea. Nik uste alfabetatzeak porrot egin duela, eta hor badago guztiok kritika modura egin beharreko galdera bat, hau da, zerk eraman du alfabetatzea uztera. Euskalduntzea beharrezkoa da, baina alfabetatzearen ordez sartu da euskalduntzea, eta, jakina, hor badago zer azterturik.

– *Alfabetatzea «kontzientzi sortzaile» bezala definitu zuen Rikardok. Gure artean izan da definizio borren jarraipena «AEK, Korrika, Bateginik, EHE... herri erakundeen iharduera eta kanpainetan» ikusi duenik. Zer diozu bonetaz?*

– Ez dutela ezertxo ere ulertu. Alfabetatzea kontzientzi sortzaile bezala onartzeko planteamenduaz zer ulertzen zen 1970 inguruan argitaratutako artikulu batean azaltzen da. Paulo Freire-ren planteamendua-
ren ildotik doa hori, alegia alfabetatzea ez dela irakurtzen eta idazten ikastea, baizik eta pentsamendu diferentziatu bat edukitzen ikastea, matizazioak egiten ikastea, klitxeak eta klasifikazioak alde batera uztea. Ez dut uste zuk aipatu dituzun erakunde horien bereizgarria hain zuzen ere pentsamendu diferentziatu bat edukitzea, matizazioak egiten jakitea eta klitxeak alde batera uztea denik. Alderantziz, kontzientzia-
zio, hitza erabili ala ez, klitxeak eta klasifikazioak egitean eta matiza-
zioak eta diferentziazioak alde batera uztean datza horien planteamen-
dua. Dena beltz ala zuri planteatzen dute, jakina, beti ere zuriak beraiek izanik. Horrek ez dauka zerikusirik Rikardoren garaian kontzientziazio hitzaz ulertzen zenarekin.

– *Zeintzu ziren hausnarketara buru-belarri emandako Rikardo zenaren kezka nagusiak?*

– Hiru aipatuko nituzke nik, hirurak bere bizitzarekin eta berak idatzitako hiru entsegu laburrekin lotura dutenak: sinesmena, hau da, erlijio munduarekiko harremanak, marxismoa, edo sozialismoa, eta abertzaletasuna. Rikardok ezezik garai hartako gazteria osoak ere barru-barrukoak zituen hiru kezka horiek.

– *Fedearen alorrean izandako krisiari kristautasunaren barruan aurkitu zion irtenbidea. Nola laburbilduko zenuke eboluzio hura? «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu» artikuluak, Rikardok idatzitakoak, ba al du zerikusirik «euskaldun=fededun» identifikazioarekin?*

– Badu, bai, zerikusirik. Rikardok bere krisia gainditzeko aurkitu-
tako irtenbidea askatasunarena da: bere krisi guztiek askatasunean
bukatu zuten. Fedearen arazoan ere, askatasunetik onartuko du sines-
mena, hau da, Elizarekiko eta dogmarekiko askatasunean baina Jainko-
arenganako sinesmen garbi batetara iritsiko da. Askatasun hori bikoitza
da: Jainkoa libre uzten du eta gizona ere bai, hau da, euskaltzale izan
liteke fededun izan gabe, eta fededun izateak ez du justifikatzen eus-
kaltzale izatea. Euskaldun izateak ez nau fededun izatera behartzen, ez
da obligazioa.

Azken batean, zuk aipatu duzun artikulu hori askatasun karraxi bat da: nik ez daukat nahitaez Jainkoa onartu beharrik, ez eta, ordea, nahitaez ukatu beharrik, askatasunetik behar dut sinestu, esango zukeen Rikardok.

– *Krisiekin jarraituz: badirudi marxismoaren superazioa ere eman zela Rikardoren bizitzan. Halere, marxistatzat joko dute bere garaian. Esaterako, berak idatzitako «Sozialismoa modan dago» artikuluari erantzunez Txillardegik polemizatu zuen zenbait esaldi garrantz irakur litekeen «Marxismoa modan egon zen» izenburupeko artikulua.*

– Rikardok marxismoa gainditu zuen, baina lehen fede arazoari buruz esan dudana bezalaxe, ez zuen marxismoa beste muturrera pasata gainditu. Haserako marxismoarekiko lotura bero haren ondoren, marxismoaren arriskuak ikusi eta halako aldentze bat esperimintatzen du, sozialismoa onartuz baina beste askatasun maila batekin, marxismoaren dogmakeriarik gabe. Marxismoak baditu gauza txarrak, baina ez dago pikutara bidali beharrik, ez dago ukaziora pasatu beharrik; mundu honetan sozialista izan liteke, baina dogmatikoa izan gabe, esango zukeen Rikardok. Beste batzuk, berriz, ez zuten tarteko biderik ikusten: edo dogma bat ala bestea. Denok dakigu 20 urteotan askotan zer gertatu den: fededun sutsu izatetik sinesmenaren ukatzaile sutsu izatera pasatu, edo baserritik irten eta derrepente bere burua Lenin baino marxistagotzat aldarrikatzera pasatu, edo abertzale sutsu izatetik euskarak ezertarako ez duela balio esatera. Ez zen hori Rikardoren jokabidea.

Niretzat Rikardo eredu da, ez anaia delako, baizik eta krisiak landu eta bizitu egiten dituelako. Krisian ez da pelotan bezala egiten, pareta jo eta erreboteraino bidali pelota.

– *Euskaltzaletasuna...*

– Pentsamendu metafisikoaren hausturako garaia zen Rikardorena, eta hizkuntzaren inguruan ematen zen metafisizazioa hautsi nahi hartan euskaltzaletasuna krisian egon zen. Kasu horretan ere askatasunetik aurkituko du Rikardok irtenbidea. Askatasun osoz euskaltzale izatea aukeratzen du, baina dogmarik gabe, onartuz gizona izan litekeela gizon Euskal Herrian euskaraz ikasi gabe, baina berak euskaltzaletasunaren aukera egiten du.

– *Bistan da euskararena Rikardoren kezka nagusietarikoa zela. Zein dela derizkiozu euskara berreskuratzeko gaur dugun eragozpen nagusia?*

– Orain dela 20 urte guztiok bizi izan genuen euskaldun izatearen zailtasuna, hori zapalduta baitzegoen. Gaurregun, ordea, euskaraz bizi nahi duenak baditu horretarako aukerak: ez du inork eragozten, ez dago galerazita. Baina euskalduntze eta alfabetatze prozesuarekin jarraitzeko badugu oztopo handi bat: motibazioarena, hain zuzen ere. Gaurko 18 urteko neska-mutilek euskaraz izan dute irakaskuntza, euskaraz bizitzeko aukera izan dute, baina eten bat dago. Motibazio positiboak aurkitu beharrean gaude, hau da, jendeari obretan erakutsi ahal izan behar zaio euskarak balio duela. Baina balio duela ez bakarrik lana aurkitzeko edo militante dela esateko edo klitxe bat eramateko, baizik eta euskarak balio duela mundu aberats bat eramateko, baizik eta euskarak balio duela mundu aberats bat eskaintzen duelako. Rikardoren garaian euskarazko entziklopediak edota dibulgazio liburuak behar ziren bezala, gaur, horiek ere behar ditugun arren, nik uste idazleak, literatoak, mundu sinboliko bat euskaraz idazteko eta sortzeko gai direnak behar ditugula. Beste erdi andoaindar bat da horren lekuko, Bernardo Atxaga: «*Obabakoak*» bezalako obrak beharrezko ditu gaur euskarak, euskara erakargarria dela ikusteko. Honetan badago aldaketa bat, baina lana egin beharra dago jendeari motibazio positiboa emateko.

– *Zuk esana duzu Rikardoren heriotza beste zerbaiten sinboloa dela: zer esan nahi izan duzu horrekin?*

– Akaso oso gogor eta karikatura moduan esana izango da, baina hauxe adierazi nahiko nuke: Rikardo hil eta oso denbora gutxi barru pentsamendua hiltzen da. Hemen ez da gehiago diskutitzen; bukatu dira, hemen, eztabaida teoriko eta ideologikoak. Balio duen gauza bakarra gogorkeria da, eta gogorkeriak ez dio pentsamenduari lekurik gordetzen. Hori tragikoa izan da herri honetan.

– *Ildo horretatik esan liteke, beraz, Rikardoren gaurkotasuna pentsamendua berreskuratzean datzala.*

– Dударik gabe. Rikardoren gaurkotasuna berriro ere zabaltasun hura edukitzean, mundura begiak ireki eta munduan gertatzen eta esaten dena hona ekartzean datza. Rikardoren garaian eginkizun ziren gauzek gaur ere eginkizun izaten jarraitzen dute: horra hor bere gaurkotasunaren lekukorik nabarmenena.

ORRIA 19. Andoain, 1989

1994-1995: 25 URTE GEROAGO

JOAN MARI TORREALDAI

RIKARDO ARREGI GOGOAN

Bai, 25 urte hauetan sarri, oso sarri, izan dut Rikardo gogoan. Honen maisua izan zen Karlos Santamariarekin biltzen naizenetan Rikardo aipatu gabe ez dugu sekula solasaldirik amaitu.

Rikardo Arregi, niretzat, leader erakargarria izan da, eragile bizia, langile nekaezina, lankide leiala eta esjentea. Irakurria zen oso, buru argia eta antolatua, han eta hemen jasotakoa asimilatzeke ahalmen handikoa, formulatzaile aparta. Haren inguruan ibili izan ginenok biziki miresten genuen. Ez dago esaterik hark utzitako zuloa zein sakona den.

Karlos Santamariarekin sarri-sarri Rikardo mintzatzeko garelako esan dut. "Hura zen gizona, hura" esanez hasten gara, eta geure buruari zera galdetuz bukatzen: biziko balitz, non ote legoke gaur Rikardo? Ez gara sekula ausartu erantzunik ematen.

Nola jakin non legokeen gaur Rikardo bere belaunaldiaren parade-roa ikusita? Gerraosteko lehen belaunaldiaren, 1956ko belaunaldiaren, udazken honetan zaila da asmatzea zein zitekeen Rikardoren traiektoria, haren garaikideon geroko bide desberdinak ikusirik.

Gure belaunaldiaren mito bihurtzeko dena du alde Rikardok. Pertsonen eta zibilizazioen udaberritan kokatzen dira mitoak. Rikardo gazterik hil zenez (27 urte betetzeke) fresko-fresko gelditu da jendearen gogotan. Eta 1956ko belaunaldi hura hasierako fasean zegoen urte horietan, gazte, emankor, bizi-bizi. Borroka guztiak bat ez zirenean elkar osatzaile ziren: politika, kultura, hizkuntza, literatura, alfabetatzea, kazetaritza. Eremuen, borroken diferentziazioa, dibertsifikazioa, elkarrengandik urruntzea, elkarri kontrajartzea... guzti hori gerokoa da. Rikardok ez zuen geroko garai hori ezagutu. Gure belaunaldiaren udaberriko eredia da Rikardo Arregi: Apaizgaitegitik pasea, Espaniako diktaduraren aurka eta Euskal Herriko tradizionalismoa gainditu nahian, Europako eta munduko aireei buru eta bihotzez irekia, berrikuntza ideologikoez liluratua, euskara eta euskal kultura desarroiloPETIK ateratzeko borrokan, nazio-arazoa eta gizarte-arazoa elkarlotzeko ahalegine-tan... guzti hori 1956ko belaunaldiaren defintizaile den neurrian gure ispilu da Rikardo.

Kultur bizialdi laburra du Rikardok: zazpi bat urte, 1963tik 1969 bitartekoa. Harrigarri gertatzen da horren denbora gutxian zenbat proiektu buruan eta zenbat lan eskuartean izan zituen: alfabetatzea, herriz herriko hitzaldiak, Zeruko Argia, Jakin, editorialgintza, Idazleen Elkarte, etab.

“Gogoan” dudan Rikardo aipatu nahian abiatua naiz eta “gogoko” dudan Rikardoz jarraitu dut. Ildo beretik, Rikardoren bi alderdi nabarmendu nahi nituzke, bukatzeko: Rikardoren saiolaritza eta Rikardoren kazetaritza.

Rikardoren saiolaritza. Gure belaunaldiaren abiapuntua ulertzeko oinarri-oinarritzkoak dira Rikardoren saioak, adibidez, “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu”, “Sozialismoa modan dago” eta “Ezkertiar berriak”. Arazoak, bizi-biziak (eta mingarriak) gordin plazaratzeko ausardia izan zuen. Arazook ez ziren bereak (bakarrik), garaiko gazteenak baizik, baina Rikardok beste inork baino hobeto formulatu eta planteatu zituen.

Rikardoren kazetaritza. Hiru mila joalditako artikulutan maisu zen Rikardo. Literato eta gramatikariaren erreinuan, Rikardoren estiloa kontrapuntua da: estilo zuzen-zuzena, biluzia, zehatza, bizia, gaira artez doana; euskararen eskasia eta guzti. Eta zentsuraren inperioan, gauzak esatea lortzen du, lerro artean irakurtzekoak izanik ere; bere pentsaera osorik adierazten du, zeharbidez bada ere; euskal problematikaz dihardu etengabe, kanpoko gertakarien erreferentzian bada ere. Irakurlearekin konplizitatea bilatzen du Rikardoren kazetaritzak.

Ez dakit non legokeen Rikardo gaur egun. Dakidana da, Rikardo bizirik, euskal kultura jasoago, indartsuago eta egituratuago legokeela.

Egunkaria, Donostia, 1994. Uztailak 08

AGUSTIN EZEIZA

RIKARDO ARREGI ZERUKO ARGIA-N

Zeruko Argia, astekari bezala, 1963an sortu zen, Fraga Informazio eta Turismo-ko Ministro zela. Francoren garaiko prentsako legea zer-bait askatu nahirik lege berria eman zen.

Baino lege berriaren ondoren ez zen aldaketa handirik sumatu egunkari eta aldizkarietan. Batez ere, garai hartako indarkeria giroan, arreta handiz jardun behar zen.

Euskal prentsak, berriz, era guztietako zailtasunak izan zituen.

Laburki bederen aipatuko ditut, garai hartan murgildu gaitezen piska bat:

a) Irakurle gutxi genuen garai hartan; *Zeruko Argia*-k bere harpide gehienak baseritarrak zituen, eta nekez irakurtzen zuten. Eta astekaria gehiegizkoa zitzaien. Eta hiri eta herri handitsuen artean irakurleak sortu beharrean aurkitu ginen.

b) Zentsura hain gogorra zen, behin ere ez zen jakiten hurrengo zenbakia kaleratuko zen ala ez. *Zeruko Argia*-k hasieratik erabaki garbia hartu zuen. Nahiz eta erredakzioa Donostian kokatua egon, Iruñeko imprimategi batean argitaratzen zen. Zer dela ta? Bestela iraupe-nik izango ez zuelako. Hala eta guztiz, nekez eta eragozpenez betetako urteak izan ziren, Donostiako Informazio eta Turismo Ordezkaría etsai gogorra zuelako.

d) Beste premia latza dirua izan zen. Harpidedun gutxi, eta merkatal publizitate urria.

e) Laugarren zailtasuna edo garrantzitsuena: idazlerik eza. Gutxi; eta horien artekoak, gehienak, gerra ondoren sakabanatuak... Hasiera hartan niretzat hori izan zen kezkarriena. Beti nire buruari galdezka hurrengo astean *Zeruko Argia*-ren orriak betetzeko idazlanik izango ote genuen. Eta hemen sortzen da Rikardo Arregiren lana eta garrantzia.

Rikardo Arregiri buruz esan dezakedana honako puntu hauetan kokatuko nuke:

Rikardo *Arregi*, langilea, lankidea, eta eragilea.

Langile amorratua. Bere bizitza laburrean, etengabeko lanean aritu zen. *Zeruko Argia*-n idatzitako artikuluak begiratzen ibili naiz, eta ia etengabe, astero, idatzi izan zituen kronikak. *Zeruko Argia*, 1963. urtean sortu zen astekari bezala, eta Rikardo *Arregi*, lehenengo hilabetean hasi zen parte hartzen. Eta geroztik, ia aste bat huts egin gabe, idazten zuen *Erriak eta Gizonak* deitzen zitzaion orrialdean.

Urte bereko Urrian *Nazio Arteko Unea* zeritzaion izenarekin hasi zen politika saileko editoriala idazten. Urtea bukatzerako, politika saileko editoriala bakarrik ez, baizik eta kronika edo komentario gaurkotasunezkoak ere bai hasi zen idazten. Lehen garai hartan, berak bakarrik osatzen zuen nazio arteko politikari eskaintzen genion orrialdea. Eta hori astero.

Beharbada, jakin nahiko duzue zertaz idazten zuen garai hartan. Izenburu batzuek emango dizkizuet, eta laster konturatuko zarete gai batzuek gaur ere gordin gordinak jarraitzen dutela. Hemen batzuk: “Erdi azitako erriak”, “Kurdistan: kurdoen ametsa”, “Haiti: erri beltz bat Ameriketan”, “Marruekosko elezioak: lenengo aldiz egiten dituztenak”. Artikulu hauek denak lehengo hiru hilabetetan idatzi zituen. Hurrengo hilabetetakoak beste hauek dira: “Ego aldeko Vietnam eta goraberak”, “Turkia eta Europa”, “Algeriako konstituzio berria”, “Panama eta Ipar-Amerika”, “Somalia eta Etiopia armetan”, “Cuba eta Algeria: bi joera, zergatik?”, “Inglaterra, Eskozia, Gales eta Ipar-Irlanda, Estatu bat, lau nazio”, “XXI. gizaldiko gizartea nola izango den”. Garai hartan, ikusten duzuen bezala, gai asko erabiltzen ziren *Zeruko Argia*-n, baino sekula ez Euskal Herrikorik. Argi zegoen hori zergatik zen.

1964ko Apiril aldera, berak bakarrik osatzen zuen orrialde horri beste atal bat erasten hasten zaio: kanpoko nazioarteko egunkari eta astekariak zioten zatirik garrantzitsuenak, beren izenburu eta guzti. Horrela, Rikardo Arregik jarraitu zuen itxuratzen nazioarteko orrialdea.

Zein izan zen hurrengo urratsa? Ondoren langile berriak aurkitu zituen politikarako. Hauek izan ziren taldeko idazleak: Xabier Lasa, Imanol Larrea, Karlos Lorena, Mikel Lasa, Iñaki Dorronsoro, Toledo eta abar. Eta berehala aberasten joan zen politika sail hura.

Garai berean, korresponsalak ere aurkitu zituen Europako hiri handienetan: Paristik Philippe Arizkun; Erromatik Donatela Pedace; Alemaniatik Erramun Peñagaricano, eta abar.

Zer esanik ez, garai hartan gazteen artean irakurtzen zen orririk nabarmenena *Erriak eta Gizonak* zela, geroago *Nazioarteko Unea* deitu izan zitzaiona. Dena Rikardo Arregiren langiletasunari esker...

Eta zer esango dizuet gure arteko harremanari buruz?

Beharbada, laburregi esango dizuet, ez baita erraza elkarrekin ondo datozen bi langileen harremana azaltzea; baino nik konfianza osoa nuen berarekin; banekien ez zidala albotik zirik sartuko. Eta nik, beste aldetik, askatasun osoa eskaini nion nazioarteko unea, berak nahi zuen bezala moldatzeko. Bera izan zen *Zeruko Argia*-ren lehe-

nengo garai hartan sostengurik garrantzitsuena, eta bera izan nuen aholkularirik egokiena idazle berri gazteen harremanetarako.

Eta, azkenik, Rikardo Arregiren beste alderdi bat aipatu nahi nuke. *Zeruko Argian*-n osatzen joan ziren bere ataletan zer ikusi handia izan zuena. Bera joan zen jende gaztea erakartzen, idea berriak sortzen. Eta sail berriak argitaratzeko orduan bera izan zen bultzatzaile, *Gazte Naiz* eta gaztetxoentzat beste batena horien artean.

Horiek izan ziren Rikardo Arregiren alderdirik aipagarrienak, oso labur kontaturik.

Andoain, 1994, Azaroak 23

JAKIN

RIKARDO ARREGI ETA JAKIN: 25 URTE

25 urte da Rikardo Arregik gure artetik aldegin zuena. Abagunez baliatuz komunikabideetan Rikardori egin zaizkion gorazarre eta txaloak ez dira hark merezi gabeak. Gehiago ere merezi du, eta badugu egingo zaion esperantzarik.

Nola isilik egon *Jakin?* Duela 25 urte, 1969a, urte beltza izan zen *Jakin*-entzat. “Bi heriotza izan ditu *Jakin*-ek 1969an”, idatzi zuen *Jakin*-taldeak 1981eko 21. zenbaki extran. “Bata, Rikardo Arregirena, uztaillaren 10ean, bide-istripuz; eta bigarrena, aldizkariarena berarena, abuztuaren 29ko debekuz”. Rikardoren heriotzarekin aski ez balute bezala, honek plataforma eta pentsamendu-tresna zuen aldizkaria ere desager-tarazi egiten dute. *Jakin*-en debekuak Rikardorekin uste baino zerikusi handiago du, hain zuzen ere Rikardok amestu eta indarrean jarri zuen aldizkari-mota baita aginte frankistak desegiten duena.

RIKARDO ARREGI, JAKINLARI

“Jakinari”: honelaxe izendatzen zuen beren burua *Jakin* aldizkariaren lehen aldiko lankideek eratzten zuten lantaldeak. (“Jakinari” izateak zera esan nahi zuen: gazte izatea, 56.ko belaunaldiko partaidea, euskara eta euskal kultura berri eta modernotu nahi izatea, ideia berrietara emana izatea).

Rikardo Arregik bere burua “jakinari”tzat zuen, eta berak harro zioenez “aspaldi batean *Jakin*-erako idatzi nuen artikulua batean ikusi nuen lehendabizikoz nere izena inprimaturik”. (*ZA*, 1966, garagarrilak 28).

Rikardok aipatzen duen idazlan hori *Jakin* 15.ean, 1961ean, atera zen: “Balmes eta Kant jakinduriaren asieran”.

Gerora, dozena t'erditik gora aldiz idatzi du *Jakin*-en, luze eta motz. Gure aldizkarian publikatu ditu garaiko euskaldungoa astindu zuten bere saio sonatuak: "Sozialismoa modan dago" (24 zenb., 1967), "Ezkertiar berriak" (25 eta 26 zenb., 1967), "Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu" (27-28 zenb., 1968). Saio haiek oso garrantzizkoak izan ziren bere garaian. Gerraosteko lehen belaunaldiaren zenbait alderdi nagusi ezin hobekiago laburbildu, formulatu eta azaldu baitzituen Rikardo Arregik artikulur horietan.

Rikardoren alderdi horiek, bere saiogintza, bere kazetaritza, etab., gutxi edo asko ezagunak dira eta jendearen eskura daude. Gutxiago ezagutzen den bere "jakinlari"tasuna azpimarratu nahi dugu hemen.

Rikardoren gogoko aldizkaria

Jakin-ek bere lehen hamar urteak egiten dituela eta, Joxe Azurmendik idazten ditu sarrera-orrilaldeak. 1966an gaude. Iraganaren zenbait datu eta azalpen eman eta gero, "geroari begira" atalburuan hartu beharreko bidetaz ari da Joxe Azurmendi.

Azken puntu honi heltzen dio Rikardok Zeruko Argia-n (1966.gara-garrilla.28). Hiru bide posible ikusten dizkio *Jakin*-i, baina bat aukeratzten du berak. Hona bideak eta aukera:

"JAKIN zertarako jaio zen ikusirik eta bere asmoak zer ziran ikusirik nik uste dut iru posibilitade auen artean egin behar duela aukera:

1.- Gaur egun *Jakin*-en idazten duten nahiko laiko, baiñan ez dugu ahaztu behar aldizkariaren zuzendaritza prailleen eskuetan daudela. Jose Azurmendi'k dio egin ditekeela sakristi usairik gabeko theologi berri bat. Ni ere ortan nago ta ori uste dut *Jakin*-ek duen posibilitade bat. Euskalerrria'k ainbeste apaiz eta aiñ jakintsuak izanik ez ditu euskaldun bezela theologiaren prolemak pentsatu. Ori izan diteke posibilitadea. Baiñan ba dakit *Jakin*-ek ez duela bide au bakarria artuko ta ontan geldituko. Era guztietara pentsatu behar dela uste dut.

2.- *Jakin* izan diteke euskaldun katoliko pentsamentuaren aldizkaria ta gaurkoz orrelako zerbait dela esan behar. Ba dakit ez dela erabat konfesionala, baiñan existentzialismoaren soroan egiñikako sarrera txiki batzuek alde batera utzirik ez dut uste gehiago egin danik. Au da behar ba da *Jakin*-ek duen biderik atsegingarriena.

3.- Jose Azurmendi'k dio *Jakin*-ek herriarekin bizi nahi duela, herriaren prolemak bizi ta pentsatu nahi dituela. Ortarako beharrezkoa errealidadea bizi nahi baldin badugu beinepein,

beste ideialogiako jendeekin itzegitea. Ori izan diteke irugarren aukera, ideialogi guztietako katoliko edo ez, jendeen arteko elkar izketarako aldizkaria, Euskalerrriari buruz. Au da biderik zaillena eta arantzaz josia, baiñan benetakoa. Posible ote da? Era guztietako katolikoak ez lukete ahaztu behar bentajarekin jokatzan dutela gaurko zirkuntantzietan”.

Hiru alternatiba hauen aurrean *Jakin*-ek badaki hirugarrena dela berea. Eta horrelaxe erabakitzen du.

Aipatu testu hori 1966an idatzi zuen Rikardok. Hurrengo urtean, proposaturiko plataforma ireki eta moderno hori praktikatzen hasten da, *Jakin*-eko buruzagitzatik. Lantalde honen gogoa, izpiritua eta asmo-gintza ulertzeko *Jakin* 34. zenbakiko “Sarrera-Editoriala” da eredurik hoberena. Batzorde orohartzaile, koordinatzaile eta planifikatzaile gisa funtzionatu nahi zuen *Jakin*-ek, bereziki Rikardok. Editorial horretako ideia nagusiak bere-bereak dira, hala nola, idazleen elkartearena, editorialen liburu-politikarena eta alfabetakuntzarena. *Jakin*-ek, Rikardo Arregirekin eta Karlos Santamariarekin, hiru mailatan egituratu beharra ikusten zuen euskal kulturgintza: Euskaltzaindia gidari; idazleen elkar-tea produzitzaile; eta alfabetatzea hedatzaile: “Alfabetatzearen bitartez Euskal Unibertsitatea herritartu behar dugu”.

Euskal kultura (eta honekin batean abertzaletasuna eta euskaltzale-tasuna bere osoan) berritzeko, eta bizkortzeko planteamenduak dira nagusi etapa honetako aldizkariaren gai nagusietan ere, hurrenez hurren, “Jakintza berria”, “Euskal Herriko hiru hereje” (Baroja, Unamuno, Salaberria), “Euskera idatziaren batasuna”, “Lehen karlistada”, “Euskal Kultura”, eta “Gaurko pentsalari bat” (Marcuse).

Garai hura gogoratu, *Jakin*-taldeak, bere 25 urtegarrenean, idatzi zuena hona ekartzea iruditzen zaigu egokiena:

“Hogeitabost urtegarren honetan, bihoazkio zortzi urte oparoz lankide eta zuzendalkide argi bezain bizkor izan genuen Rikardori *Jakin*-en oroipena eta omenaldia. Bere pertsonalitate bortitzaren marka ezarri dio betiko aldizkariari. Rikardo, izan ere, *Jakin*-en “sortu” zen, aldizkari honetan estreinatu zuen luma 1961an, harrez gero beti gure bileretan izateko; *Jakin*-en produktu tipiko bat zen, kulturgintzaren bere kontzepzioan adina, bere akats eta guzi (literaturaren gutxiespenean adibidez), bere ekipoaren eta ekipo lanaren obsesioan, eta oinarritzko beste hainbat ikus eta planteamoldetan euskal kulturari buruz. Ez da gutxiago aldizkariak Rikardori, haren dinamismoari eta ideia

jariorari, zor diona. Bion historiak elkar josita geratu dira betikotz". (Jakin 21, zenbaki extra)

JAKIN-EN HERIOTZA ADMINISTRATIBOIA

Rikardo 1969ko uztailean hil zen. Bere *Jakin*-ek iraun zuen. Hila-bete bat gehiago bakarrik, ordea. Abuztuaren 29an, oporretan, aldizkaria isteko agindua jaso genuen Madriletik.

Fragaren Ministerioak debekutzen duen *Jakin* ez da Arantzazukoa, kalera jaitsia zena baizik. Fraga Ministroak eta Ugarte Donostiako Dele-gatuak debekutzen duten *Jakin* ez da Balmes eta Kant-en jakinduri-az ari dena, baizik eta, sozialismoa modan dagoela eta euskaltzaleen Jain-koa hil behar dela aldarrikatzen duena.

Jakin, artean, Arantzazukoa zen izan. Ikasle teologoen aldizkaria, gainera. Zentsuraren erreinuan bestela ezina zelako, gaien aldetik eta idazleen aldetik mugatua zen oso. Hau da, teologia, filosofia, kultura zen bere eremu bakarra. Eta Arantzazuko ikasleek bakarrik idatz zeza-keten. *De facto*, muga horiek ez ziren sekula gorde. Eta hori bazekien Administrazioak. Bazekien, hortaz, nahi zuenean erabaki administratibo hutsez gelditu zezakeela aldizkaria. Horrela jokatu ohi zuen frankismoak. Euskarazko aldizkari normalizatu bat, informazio orokorrekoa adibidez, ez zen posible frankismoan. Anaitasuna eta Zeruko Argia ere ez ziren informazio orokorrekoak eta ezin zuten, kasurako, politika-gairik aipatu. Administrazioaren esku zegoen bada, betiere, edozein euskal aldizkari. Agintearen ustetan "desbideraketarik" gertatzen zenean, erre-gistroa kendu, eta kitto.

Testuinguru horretan ulertu behar da *Jakin*-ekin gertatua. Debekua baino urtebete lehenago, 1968ko martxoan, Ugarte Donostiako Dele-gatuak abisua pasea zion Ministro jaunari:

"Ocurre que en todos los números y muy especialmente en este último, los principales colaboradores son personas ajenas a la Orden y que, además pueden considerarse entre los progresistas más avanzados del País.

Caracteriza a esta publicación, en la mayoría de sus trabajos, estudios sobre el socialismo y marxismo, no tanto en lo que pudiera tener de conexión con la teología y la filosofía de un Seminario sino el socialismo y marxismo práctico de los países de la órbita rusa".

Urte bereko uztailean beste ohar batean honela kalifikatzen da Madrileko bertako zentsura-bulegotan gure aldizkaria:

“La revista *Jakin*, tanto en este número como en el anterior, ha dejado de ser una publicación para los teólogos de la Orden Franciscana. Parece más bien, por los temas que toca y por los artículos, un intento de convertir esta publicación en una revista para intelectuales, con tendencia socialista dentro de un vasquismo a ultranza”.

Abisu hauek, halere, ez zuten une horretan horren ondorio txarrik izan. “Amonestación verbal” eta kitto. Baina paper solte batean, –eta eskuratu ahal izan dugu gero– kontsigna garbi bat agertzen da: “*Darles cuerda para que ellos mismos se aborquen*”. Zorionez edo zoritxarrez, Ministerioko barne-erabaki horren berririk ez genuen guk orduan. Eta aurrera segitu genuen, erregimenaren ustezko malgutasunean sinestuz ez bada ere hartaz baliatuz. Harik eta hurrengo urtean Damoklesen ezpata gainera erori zitzaigun arte. Ez zigorrik, ez epaiketarik izan genuen. Sinpleki, erregistrotik ezabatu zuten *Jakin*, argitaratzeko esku-bide guztiak, betirako (bere ustez) kenduz.

Birritan hil zen Rikardo 1969an. Bera, pertsona. Eta bere hazia, bere lana, bere plataforma, *Jakin*.

RIKARDO, LABURREAN

AMAIA LASA

Ezkerreko euskal lider bat bezala ikusten nuen, independentea, hori bai. Bere kezka politiko hark kultura arloa, kazetaritza eta dena hartzen zuen. Gauza guztien gainetik euskararen alde egiten zuen. Askotan zioen euskara zabaltzea erraza izango zela politikoki libre izatea lortzen genuen momentutik. Erabat berritzailea suertatu zen nazionalismo tradizionalarekiko.

Argia 1491, 1994, Uztailak 10

IBON SARASOLA

Kazetaritzan oso estilo bizia zuen, eta hor bere ekarpena handia izan zen: hainbat jende jarri zuen astero “Erriak eta gizonak” irakurtzen. Zentsura mareatzeko abila zen. Nazioarteko artikulua beti gure egoerara aplikatuak irakurri behar ziren, eta hor trebezia bazuen hainbat gauza kontatzeko kontatu ez balitu bezala. Lerro artean irakurtzea esaten den hori.

Argia 1491, 1994, Uztailak 10

JUAN SAN MARTIN

Oso langilea zen, pentsamendu argikoa eta ideia berriekin zeto-rena. Bere galera garrantzi handikoa izan zen, biziko balitz seguru askoz indar handiagoz joango litzatekeela euskara aurrera. Politikan zein bide hartu zalantzan zebilen, ezkertiarra zen baina “baina” horiekin; euskararen alorrean, aldiz, zalantzarik ez zuen. Esperantza handia jarria zegoen bere eraginkortasunean.

Argia 1491, 1994, Uztailak 10

ANDONI SAGARNA

Bilaketan zebilen pertsona zen. Kristaua zen, baina hor ere eredu baten bila zebilen. Euskaldun fededun monolitiko hura garai hartan hasi zen hankaz gora joaten. “Euskaltzaleen jainkoa hil behar dugu” saioa ez zen manifestu atea, baizik eta eredu bat puskatu nahia. Halako errebeldia moduko bat bazegoen beregan, garai hartan polemikoak ziren gaiak plazaratzera ausartu zen.

Argia 1491, 1994, Uztailak 10

MIKEL LASA

Garai hartarako politikoki oso orekatua zen, eta oso ondo zekien zubiak ez hausten euskal mugimendu guztiekin. Ez zuen inoiz gaitzesi EAJ bat edo orduko erbesteko taldeak. Pena izan da inork ez hartua Rikardo Arregiren joera ireki eta malgua, azken urteotan joerak asko gogortu dira eta irekitasun hura asko galdu da. Malgutasun itzela zuen korronte guztiekiko.

Argia 1491, 1994, Uztailak 10

JOAN MARI TORREALDAI

Nahiz euskara eskasa erabili eta alde horretatik ospe txarra izan, gaira zuzen zuzenean joate hori ekarri zuen Rikardok. Estilo bizia zuen, zehatza, segurua, biluzia eta barrokiar gabea. Gerraosteko belaunaldian kazetaritzaren estilo objetibo gordin horretara hobekien hurbildu zena bera izan zen. Karlos Santamariaren eskolakoa zen. Informazio eta iritzia arteko loturan asmatu zuen. Artikulu txikietan maisu zen (...) Errealitate hori birpentsatu egiten du pentsamendu moderno eta ezkertiar batekin. Topiko eta estereotipo onartuak kritikatzen zituen (...) Kristau-demokrata izatetik sozialista humanista izatera

pasatu zen, sozialismo esentzialista ukatu egin zuen, eta Marx bera ere birpentsatu egin behar dela. Arazoen formulazio eta birformulazioan maisu zen. Printzipioak ez zituen sekula ukatzen, baina edukiz bete behar ziren hitz handi haiek: sozialismoa, katolizismoa, abertzaletasuna (...) Lehen aldia izan zen publikoki eta idatziz euskaldun fededun monolitiko hura hautsi beharraz hitz egin zena. Hala ere ez zen borroka bila joaten, oso integratzailea zen (...) Rikardo irakurle ona zen. Literatura frantsesa asko erabiltzen zuen. Irakurle ona izateaz gain sintesi ahalmen izugarria zuen, eta gero informazio hori gure egoerara egokitzen zuen. Originala baino, beraz, birpentsalaria zen.

Argia, 1994, Uztailak10

RAMON SAIZARBITORIA

Dena esana al dago iaz hainbeste aipatu den zure lagun Rikardo Arregiz?

Egia esan ez dakit zer esan den ere. Hain gazterik hil zen pertsona bat dudarik gabe inkognita da. Nik esaten dut inteligentziaz aparte heldutasun handia zuela. Hura bai zela animalia politikoa. Garai hartarako politikari bezala bizi nahi zuen, orain egiten den politika konbentzionala egin, ez politika erresistentziakoa, profesionala. Bere etorkizuna politikan ikusten zuen bakarra zen, hain gaztea izanik. Alde horretatik ez dakit zer etorkizun izango zuen.

Beste ezaugarria, heldutasuna. Orain ikusten dudan jende helduaren artean ikusten ez dudan heldutasuna. Eta orijinala zen. Alderdi formalak izan zuten jantzeko eran, eta era berean bazuen independentzia zentzua, bere kabuz bizi ahal izateko, dirua lortzeko... Igandetan kalean geundenean berak lanera joan behar izaten zuen etxean dirurik ez eskatzeko. Alderdi jatorra eta katxondoa ere bazuen.

Artean bemen EAfrik ia ez zegoenean...

Baina itzal handia zuen jende helduaren artean, EAJren egitura klandestinoan ere bai, eta errespeto handiz tratatzen zuten abaniko zabaleko jendeak. Azken denboratan EMK-koa izango zen jendeak nahi izaten zuen berarekin hitz egin, bazekitelako situazioa kontrolatzen zuela, eta analista zela. Bera ez zen sektarioa, eta interesa izaten zuen mundu guztiarekin hitz egiteko, bere edade hartan nahiko harri-garria zena.

Eta nola ezkontzen zineten zuek biok eta Gabriel Aresti hirukote bezala?

Ni bere ondoan umea edo arinagoa, txepelagoa nintzen, eta bera serioa. Berak errespetatzen zuen nire alderdi hori. Ni polibalentegoa izan naiz, ez naiz giro bateko pertsona izan, –Ibon eta biok izan gara kaletarrak mundu horretan– eta Rikardok hori errespetatzen zuen; paternalismo kutsu batekin ere bai, baino ondo.

Arestirekin berdin. Mundu guztiak errespetatzen zuen bere zoro alderdia. Oso maitagarria zen. Bestalde, Arestik Arregi asko maite zuen. Hori esplikagaitzagoa da, baina asko maite zuen. Arestik funtsean seriotasuna maite zuen. Alderdi asko zituen, eta denak oso benetakoak. Bazuen alde anarkista, formala ere bai itxuraz, baina traketsa –korbata janzten zuen, baina gaizki lotua– eta EAJrekin ere elkartzen zen puntu batzuetan.

Era berean nik ezagututako anarkorik handiena izan da. PCEn ortodoxia komunistarekiko ere bazuen errespeto eta maitasuna. Gauza asko maite zituen. Maite zuen euskaldun kristau zintzoa, zintzoa zenean, langile ona eta umila, anarkista mozkorra, komunista... denak maite zituen. Eta oso euskaltzalea zelarik Rikardo ikusten zuen euskararen balore bezala.

Argia 1514, 1995 Urtarrilak 22